SAKANAKO ASTEKARIA • 2017ko apiribilak 13, osteguna • 2. aroa • 593. zenbakia

GUAIXE.EUS

PRES TOKIKOM

Ahoa eztitan, euskaraz

3

Etxarri Aranatz eta Arrankudiaga-Zollo senidetuko dira

>>5

Donejakue biderako aurreproiektua egina, gauzatzeko lanean

>>6-7

Altsasukoak Aske futbol txapelketan 20 talde

>>10

Nafarroako Bertsolari Txapelketan Lazkoz 2.

>>15

Sakanako ekoizleak Etxarriko Ama Lur azokan

>>5

Lakuntzako Pop-Rock lehiaketa hastear

>>13

Udaberriko azoka, loreak eta gehiago Arbizun

>>5

ZORION agurrak

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke: ES 56 3035 0018 47 0181012564

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

June
Neskatxa ederra, zeñen lasei jayozara udaberriyen, lore eta txoritxo pollittok bezela!! Ongi etorriye izen, eta muxu aaaasko zuteko. Zure famelikuek.

Bazkideek deskontua

Bakarra: 4,00€

Bazkideek: 3,50€

Apiribila 13-27

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Musika

Nafarroako Orkestra Sinfonikoa. Apirilaren 21ean, ostiralean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Garabatos, Dentera eta Kaskatako. Apirilaren 22an, larunbatean, 19:30ean Lakuntzako kultur etxean. Pop-Rock lehiaketa.

The Fridays Crew, Embajada eta Bultz. Apirilaren 22an, larunbatean, 22:30ean Etxarri Aranazko gaztetxean.

Zarena zarelako. Apirilaren 23an, domekan, 17:00etan eta 18:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Haize Berriak banda.**

Antzerkia

Tren-din-topic. Apirilaren 22an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Iortia antzerki tailerra.**

Encerrona. Apirilaren 23an, igandean, 19:30ean Irurtzungo kultur etxean. **Pepe Viyuela.**

Dokumentalak

5 aurresku´s. Apirilaren 21ean, ostiralean, 20:00etan Irurtzungo kultur etxean. **Josetxo Goiarekin solasaldia.**

Hijos de la tierra. Apirilaren 24an, astelehenean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Zuzendariarekin solasaldia.**

Zinema

Manchester frente al mar. Apirilaren 14an, ostiralean, 22:00etan eta apirilaren 16an, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

La vida de Calabacín. Apirilaren 16an, domekan, 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Moonlight. Apirilaren 20an, ostegunean, 19:00etan; apirilaren 21ean, ostiralean, 22:00etan eta apirilaren 23an, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

Es por tu bien. Apirilaren 27an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Mendi irteera

Olatzagutia-Arantzazu. Apirilaren 23an, igandean, 7:00etan Olatzagutiatik. **Sakanako Mendizaleak.**

Bizikleta irteerak

Altsasu-Mutiloako harrobia-Altsasu (80 km). Apirilaren 15ean, larunbatean, 9:30ean Altsasuko Baratzeko bideko lokomotoratik.

Otsoportillo (48 km). Apirilaren 16an, domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik eta 9:40an Bioitza kanpinetik. **Barranka txirrindulari taldeko mendi bizikleta taldea.**

Altsasu-Lizarra-Altsasu (95 km). Apirilaren 22an, larunbatean, 9:30ean Altsasuko Baratzeko bideko lokomotoratik.

Zumaiako flyscha (31 km). Apirilaren 23an, domekan, 7:30ean Altsasuko Barranka txirrindulari taldeko mendi bizikleta taldearen bajeratik.

Erakusketak

Contra las luces. Apirilaren 26ra arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko Iortia kultur gunean. **Gure Elia Soteras.**

Hitzaldiak

Brigaden aurkezpena eta Sardiniako brigadistak. Apirilaren 7an, ostiralean, 22:00etan Arbizuko Argi Bidea elkartean. **Askapena.**

Literatura

Dado magikoekin ipuinak asmatzea. Apirilaren 20an, ostegunean, 18:00etan Arbizuko liburutegian.

Nemo kapitainaren azken bidaia. Apirilaren 21ean, ostiralean, 18:30ean Arbizuko udaletxeko batzar gelan. **Castillo Suarezen liburu aurkezpena.**

Liburu irakurketa kolektiboa. Apirilaren 25ean, asteartean, 17:00etan Olatzagutiko liburutegian.

Piel de topo. Apirilaren 26an, asteazkenean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Jon Arretxeren liburu aurkezpena.**

Lapur banden etika ala politika. Apirilaren 27an, ostegunean, 19:00etan Etxarri Aranazko liburutegian. **Joseba Sarrionaindiaren liburuaz ariko da irakurle taldea.**

Mainamikirri. Apirilaren 27an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Tailerrak

Hiru txerritxoak Sandindegin. Apirilaren 18an eta 19an, asteartean eta asteazkenean, 18:00etan Arbizuko liburutegian. **Bertso-ipuina marraztea.**

Gloria Fuertesi buruzko haurrendako poesia. Apirilaren 25ean, asteartean, 18:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Manolita Thunders.**

Ilustrazio albumetan oinarritutako tailerra. Apirilaren 27an, ostegunean, 17:00etan Olatzagutiko liburutegian. **Liebana Goñi.**

Azokak

Udaberriko azoka. Apirilaren 23an, igandean, 10:30etik 14:30era Arbizuko plazan.

Amalur azoka. Apirilaren 23an, igandean, 10:00etatik 14:00etara Etxarri Aranazko plazan. Belardi.

Bestelakoak

Haurrendako jolas parkea. Apirilaren 20an, ostegunean, 11:30etik 13:30era eta 16:30etik19:30era Etxarri Aranazko frontoian.

Arrankudiaga-Zollo eta Etxarri Aranatz senidetzea. Apirilaren 23an, igandean, 12:00etan Etxarri Aranazko udaletxeko bilkura gelan.

Liburu trukea. Apirilaren 23an, igandean, 10:30etik 14:30era Arbizuko plazan.

Txingurrikolore. Apirilaren 23an, igandean, Lakuntzako kultur etxean. Txingurriye.

Deialdiak

Altsasukoak aske. Apirilaren 14an eta 21ean, ostiralean, 19:00etan Altsasuko udaletxe parean.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Apirilaren 14an eta 21ean, ostiralean, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Errepublikar ekitaldia. Apirilaren 22an, larunbatean, 12:00etan Altsasuko udaletxe pareko oroigarrian. **Izquierda Unida.**

Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da. Apirilaren 16an eta 23an, igandea, 12:30ean Etxarri Aranazko Kale Nagusiko 7. zenbakian.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Apirilaren 16an eta 23an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

SAKANA

Ahoa eztitan, euskaraz

AEK-ko arduradunek aurtengo Korrika inoizko handietan izateaz aparte indartsuena izan dela adierazi dute. Hala izan zen Sakanan ere. Jendetza elkartu zen, nahiz eta gauak aurrera egin ahala kopurua txikitu. Kilometroak korrika, patinetan eta bizikletan egin zituzten sakandarrek, baita aitaren bizkar gainean edo gurditxoan ere. Ibilbidearen zati handi batean AEK-k ezarritako ordutegia baino lehenago joan zen eta abiadura mantsotzea eskatu zitzaien korrikalariei. Baina Urritzolara atzerapenarekin iritsi zen euskararen aldeko lasterketa. Estreinakoa zuen Korrikak Arakilgo herrian, horregatik, urritzolarrek lekukoa hartu eta Errotzerantzjo aurretik herriko kale bakarrean barna eraman zuten. Lekukoa Iruñeko Sarasate pasealekura nola iristen zen makina bat sakandarrek ikusi zuten. Eskuz esku ibilitako lekukoaren barruan Joseba Sarrionandiak idatzitako mezua zegoen.

Ibilbidean barna harremanak eta elkarlana landu dira Korrika 20an. AEK-ko koordinatzaile nagusi Mertxe Mujikak esan duenez, "gizarte eragileen eta erakundeen arteko harremanak eta elkarlana nahitaezkoak dira. Orain, hitzetik ekimenetara pasatzeko garaia da". Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa tresna egokia izan daitekeela adierazi zuen.

+Argazkiak, bideoa...: www.guaixe.eus

Altsasuko "Kuadrilla xelebrea" lekukoa eramaten.

Loreak eta erremintak

Oi lur, oi lur, oi ene lur nerea

Udaberria da, loreak eta kolore aniztasuna buruan. Lanean hasteko unea iritsi da, lurra prestatu eta lorontziak prestedukitzeko garaian gaude.

Loreen artean lau izaten dira protagonistak gure bailaran, hala nola, *petuniak*, ederrak eta kolore anitzetakoak, *geranioak*, kolore erakargarri eta biziak *alegriak*, askotarikoak eta kolore ezberdineta-koak eta *surfiniak*, zintzilikarioak eta kementsuak . Izarte lorategirako zentroan eta Unamunon aukera paregabea izango duzu.

Erremintei dagokionez, negutegien garrantzia azpimarratuko genuke. Estalitako instalazioa da, eta kasu gehienetan gardenak diren materialekin itxita. Helburua baldintza klimatologiko txarretan landarea babestea izaten da. Gure ibarrerako aproposak izan daitezke. Kristalezkoak, plastikozkoak eta sarezkoak dira gaur egun merkatuan daudenak.

Zurrumurru ari du

astekoa

Marian Mendiola Barandalla

Sakanako Immigrazio Zerbitzuan, ikastetxeetan eta guraso elkarteetan Negu Gorriak-en kantak dioen moduan dabiltza: Uuuuu… Kolore bizia, arrazakeriaren kontra! Uuuuu… Kolore guztiak, faxismoaren kontra! Uuuuu… Kolore bizia, xenofobiaren kontra! Uuuuu… Kolore guztiak, faltsukeriaren kontra!

Hemendik aurrera, noizbait, uda ala negu, aterki koloretsua daraman haurren bat ikusten baduzue, erne egon. Segur aski zurrumurru ari du. *Doraemon* edo *Gadgeto paraguas*-ek egiten duen magiaren moduko bat gertatuko da Sakanan aterkiekin, izan ere, zurrumurruen jasari aurre egiteko tresna bihurtu baita. Eta gainera, euritakoarekin batera zabaldu duten txintxilikarioa (hiru urteko haurren aita-amentzat) amuletu bihurtu dute, norberaren eta besteen eskubideak babesteko. Etorkinen inguruan sortzen ditugun zurrumurruak gelditzeko eta aniztasuna baliosteko, ortzadarraren aterkiak zabalduko dituzte gure haur txikiek. Izan ere, etorkinen inguruan makina bat esaldi, zurrumurru eta uste barreiatzen dira, egiak ez direnak. Zurrumurru asko ezberdinak direnei oldartzeko eta estigmatizatzeko besterik ez dira erabiltzen. Gaitzespen diskurtsoak, gehienetan, beldurrean, informazio ezan eta manipulazioan oinarritutakoak izaten dira. Non nahi sortu eta zabal daitezke, txinparta moduan. Ustez kontrolatua eta isildua dugun arrazismoa kanporatu eta konturatzerako bere onetik ateratzen dugu. Bere arrazismo dosia duen gizarte batean bizi gara; bere matxismo eta klasismo dosia duen bezala. Onartu beharrean gaude "ismo" horiek guztion baitan daudela. Beharrezkoa dugu pertsona bakoitzak gure baitan dugun arrazismo dosi horrekin borrokatzea edota horri aurre egiten laguntzea. Eraldaketarako prozesu pertsonalak eta kolektiboak egin behar ditugu, gu guztiongan egon daitezkeen sentimendu makurrenak eta baztertzaileenak lantzeko. Eta horretarako aproposak eta lagungarriak dira era honetako ekimenak eta beste asko gehiago ere. Kolore askotako jendea elkartuz, aniztasuna eta elkarbizitza defendatzeko, egin dezagun "gure sinbolo" baloreen aterki hori. Badakigu oso zaila dela arrazakeriaren zainak kanpora botatzea, baina, zurrumurruak, sinesmen faltsuak eta mamuak deuseztatzea lortu beharko genuke. Hasi gaitezke gaiari beste begi batzuekin begiratzen eta bizikidetzaren lehenbiziko urratsak ematen, kaleak eta txokoak elkarrekin konpartituz.

Hara zer dien

Laguntza produktuak

Terapia okupazionalaren lan arlo bat da laguntza produktuen erabilerarako eta ingurunearen egokitzerako aholkularitza, balorazioa eta entrenamendua ematea, hau guztia dementzia daukan pertsonaren funtzionalitatea mantentzeko eta zaintzak errazteko helburuarekin.

Izan ere, jarduera guztiak eremu fisiko batean egiten ditugu eta pertsona batek inguruarekiko izango duen harremana ona edo txarra izango da bere gaitasunen arabera, eta baita ere ingurunearen ezaugarrien arabera ere. Egin ditzakegun aldaketa batzuk dira: sinplizitatea, oztopoak txikiagotu edo kentzea (alfonbrak, tokia kentzen duten altzairuak), argiztapen on bat izatea, gehiegizko zarata kontrolatzea, seinaleztatzeko argazkiak eta hitzak dituzten kartelak jartzea, seinaletan eta gauzetan koloreak kontrastatzea, erlojuak, egutegiak, produktu eta objektu arriskutsuak erretiratzea. Laguntza produktuak merkatuan eskuragarri daude edo erabiltzailearen beharrei bereziki egokituta egiten dira eta gailuak, ekipoak eta softwareak dira. Salgai daudenak makina bat dira eta helburuaren arabera sailkatuta daude; desplazamenduan laguntzekoak (makuluak, taka-takak, gurpildun aulkiak…), gorputzaren postura mantentzeko edo aldatzekoak (eusteko barrak, zauriak ekiditeko kuxinak), elikadurarakoak (kirtena lodituta daukaten mahaitresnak, isuririk ez izateko prestatutako edalontziak…), komuneko garbiketarakoak (bainuontzian jartzeko aulki birakaria, komuneko jesarlekua igotzekoak, eusteko barrak, dutxarako aulkiak…) etab. Funtsezkoa dena da espezializatutako dendatan erostea, profesionalengandik aholkua jasotzea eta erabiltzeko entrenatuak izatea; horrela, pertsona bakoitzaren beharretara egokituko gara.

Gainera, Nafarroan zorionekoak gara, izan ere, urtarrilean mustu zen Iruñean irisgarritasun eta laguntza produktuen gaineko aholkularitza eta laguntza gunea, zeina dependentziaren balorazio talde profesionalaren ardurapean dagoen.

Josefina Arregi Klinika

objetibo tik

Lepoan hartu ta segi aurrera:

Txikiak ez du gogoratuko, baina aurreneko bere Korrika 20a izan zen, eta aitaren bizkarrean hainbat metro egin zituen. Bera ere euskararen alde. Apika, noizbait lekukoa eramanen du.

Lekukoa, urritzolarrendako:

Hogeigarrenean izan zen, Korrika Urritzolatik pasa zen. Eta ez nola nahi. Behin han zela lekukoa herria ezagutzera eraman zuten. Ea hurrengorako bidea ikasten duen?

objetibo tik: gutunak@guaixe.eus

Guaixe

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILEA: Ruben Imaz Alcaide • maketazioa@guaixe.eus
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus

KOLABORATZAILEAK: Erkuden Ruiz Barroso eta Eñaut Agirrebengoa Apaolaza
ZUZENTZAILEA: Patxi Flores
ARGITARATZAILEA: Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eus
DISEINU ZERBITZUA: GK• Ainhoa Etxeberria Pikabea • gk@gkomunikazioa.eus
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • admin@guaixe.eus
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

BAZKIDEAK

mecna

Mank sakana

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

sakanerria >>

» Etxarri Aranatz

Arrankudiaga-Zollo herriarekin senidetuko da Etxarri Aranatz

Apirilaren 23an, igandean, 12:00etan ekitaldia izanen da udaletxean. 14:30ean, berriz, herri bazkaria

Etxarri Aranazko Udalak Bizkaiko Arrankudiaga-Zollo herriarekin senidetzea erabaki zuen hilaren 5ean. Bi herriak estatus politikoari buruzko aurreneko kontsultak egiten lehenak izan ziren Hego Euskal Herrian. Etxarri Aranatzen A13 plataformak sustatuta 2014ko apirilaren 13an egin zen eta Arrankudiaga-Zollon urte bereko azaroaren 2an, Ados plataformak antolatuta.

Etxarri Aranazko Udalak onartutako adierazpenean jaso denez, "demokraziaren aldeko eta erabakitzeko eskubidearen aldeko urte historikoa izan zen hura, lehen aldiz herritarrek nahi izan zutena adierazi baitzuten, demokrazia zuzenaren bitartez. Bi herriok aitzindariak izan gara erabakitzeko eskubidea gauzatzen". Hiru urte beteko direla eta Etxarri Aranazko Udalak adierazi du "herrian egin zen kontsultari beren parte-hartzearekin auzokideek eman zioten legitimitatea ematea, eta baita aitortzea ere gertaera horrek Etxarri Aranazko historian, Nafarroan eta Euskal Herri osoan duen garrantzi historikoa, ordutik egin diren galdeketa guztien aitzindaria izan delako".

Herri galdeketa egin zuten aurreneko bi herriak senidetzeko prozesua hastea ere erabaki du. "Gainera, bi herrien artean lotura eta harreman kulturalak eta pertsonalak ezartzeak Euskal Herriak gaur egun duen lurralde-banaketa gainditzen lagunduko duela uste dugu". Hilaren 23an udaletxean eginen den erakunde-ekitaldi batean gauzatuko da. Gainera, oroigarri moduan, herriko toki esanguratsu batean plaka bat jarriko da. Etxarri Aranazko Udalak ekitaldi horretara Sakanako udalak eta Gure Esku Dago taldeetako ordezkariak eta arduradunak gonbidatu ditu. Ekitaldian Arrankudiaga-Zolloko Udaleko eta Ados plataformako ordezkariak izanen dira. Etxarriarrak azaroaren 6an izan ziren Bizkaian.

Herri bazkaria

Txartelak apirilaren 18ra arte erosi daitezke; helduek 15 euro eta 12 urtera arte, 8. Bazkariko tokia eguraldiaren arabera erabakiko da.

Arrankudiagan joan den urtean egindako ekitaldia. ARTXIBOA

Sakanako beste senidetzeak

Herria	Senidetutako herriak
Uharte Arakil	Uharte Iruñea (Nafarroa)
	Uharte Hiri (Nafarroa Behera)
	Uharte Garazi (Nafarroa Behera)
Arbizu	Marda (Palestina)
Altsasu	Piedras Albas (Extremadura)
	Senpere (Lapurdi)

» Arbizu

Udaberriko azoka prest

Apirilaren 23an, igandean, 10:30etik 14:30era plazan. Eguraldiak lagunduko ez balu toldoa jarriko litzateke.

Zortzigarren urtez lore eta landare azoka hartuko du Arbizko Udalak. Bisitariak eta arbizuarrak herrian bertan etxeak edertzeko eta baratzak janzten hasteko landarez hornitzeko aukera aparta da azoka. Horretarako hainbat postutan eskaintza zabala opatuko dute. Esaterako, dagoeneko presentzia ziurtatu du Urtieneak (Usurbil). Gainera, lore eta landareak egoki hartzen laguntzeko Sakanako Mankomunitateko Hondakinen Zerbitzuak konposta banatuko du.

Arbizuko Udala da antolatzailea eta Udaberriko Azoka izena ematea erabaki du. Izan ere, lore eta landareez aparte beste hainbat gauza izanen dira Arbizuko plazan: Arizkuren (xaboiak eta ukenduak), Urdiaingo xaboiak, Mikel Berastegi (eztia), Tomas Mauleon (zura), Miriam (oihalak eta artilea), Maika (haziak eta ukenduak), Ines (jateko haziak, bero-zakuak), Batuta birziklatze laborategia, Idoia Zufiaurre (ilustrazioak), Irantzu Garcia (*Zergatik* ilustrazio liburua), barazkiak saltzen dituen postu bat, larruzko pilotak...

Herritar bat loreak eta landareak ikusten.

Liburu trukea

Liburuaren Eguna dela eta, joan den urtean bezala, Arbizuko udal liburutegia presente egonen da. Azokan mahaia jarriko dute eta han liburuak trukatzeko aukera izanen da.

Amalurretik salmahaira

Ama Lur Etxarriko plazan eginen da berriro.

Apirilaren 23an, igandean, 10:00etatik 14:00etara Amalur azoka plazan

Belardi elkarteak ibarreko nekazariek, abeltzainek eta ekoizleek osatzen dute. Haren helburua Sakanan lehen sektorea bermatzea eta kontsumo zuzena eta tokikoa bulkatzea da. Asmo horrekin sortu zuen Ama Lurra azoka, aurten seigarren aldiz antolatzen dutena Etxarri Aranazko Udalaren laguntzaz. Azoka hori Sakanako nekazaritza eta abeltzaintzaren erakusleiho izan nahi du.

Amalur azoka Sakanako eta Nafarroako ekoizleen 18 bat salmenta postu izanen dira eta haiek ekoiztutako produktuen salmenta zuzena eginen dute, bitartekaririk gabe. Gainera, bisitariei ekoizpen prozesuaren inguruko azalpenak emateko prest egonen dira. Euren salmahaitan gazta, ardoa, ogia, karakolak, txerrikia, ukenduak, olioa, ereiteko patata eta beste izanen dira. Gainera, abeltzainek zein abererekin lan egiten duten ikusteko aukera izanen da. Ardiak, txerriak, behiak, astoak, behorrak... ikusteko aukera izanen da. Goizean eta eguerdian plazan erretako Euskal txerriko pintxoen dastaketa izanen da. Musika, jakina, ez da faltako.

Taillerrak

11:30etik aurrera gazta egiteko, ardiei ilea mozteko eta artilea lantzeko tailerrak izanen dira.

www.pescaderiamariaeugenia.com
Arratsaldez zabalik
maríaeugenia
Arrainak
Lortu deskontuak gure txartelarekin!
Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722
El Ferial, 1 • 948 467 950 / Isidoro Melero • 948 467 725

Taxi
Jose Iturralde
629 42 80 25
9 lagunendako Taxia / Irurtzun
taxijoseiturralde@gmail.com
www.taxijoseiturralde.com

Donejakue bidearen aurreproiektua

Sakanako Donejakue bidearen berreskurapena, bidean

Aurreproiektua egina dago eta hura garatzeko tramitazioa hasiko da orain

Sakanako Garapen Agentziaren (SGA) turismo teknikari Paki Urbitarteren aurtengo egitekoetako bat Donejakue bidearen inguruan lan egitea izanen da. SGAk Mirua enpresarekin elkarlanean aurreproiektua ondu zuten. Sakanako Donejakue bideak berezitasun bat izanen du, oinezkoendako eta bizikletendako izanen da. Bizikletendako Donejakue bide baten alde egiteko arrazoia aukera bat baliatzea da: Plazaola bide berdea Baiona, Donostia eta Iruñea lotuko dituen Ederbidea bizikletendako ibilbidearen zati izanen da. Aldi berean, Ederbidea Europa iparraldetik hegoaldera zeharkatzen duen Eurovelo sarearen zati izanen da.

Miruako Mikel Albisu egileak azaldu duenez, ibilbidearen proposamena egiterakoan kontuan izan dituzten parametroetako batzuk izan dira: herri guztietatik pasatzea, ibarrerako zerbitzu bide bat izatea eta jatorrizko bidea kontuan izatea. Baina Ederbideak edo Eurovelok markatzen dituzten parametroak ere badaude: bideak ezin du %6ko malda baino gehiago izan, toki jakinetan izan ezik; bi bizikleta gurutzatzeko adina zabalera izan behar du bideak; errepide bat aukeratuz gero ezin dira egunean mila ibilgailu baino gehiago pasa eta bizikleta hibrido batendako egokia izan behar du.

Gainera, Sakanako mugikortasun sare bat osatu beharra zegoen, beraz herri guztiak lotu behar ziren. Ibarreko baliabide nagusiak eta garraiobideak ere lotuta egon behar zuten. Azken horrekin bisitariari erraztasunak eman nahi baitzaizkio. Baldintza horiek eta gobernuak jarritako beste batzuk kontuan hartuta osatu egin da Donejakue bidearen ibilbide proposamena. Irurtzun eta Ziordia artekoa 45 km-ko ibilbidea da. %99an oinezkoen eta bizikletendako ibilbideak bat egiten du, Egiarretako puntu batean izan ezik.

Baina herri guztietatik, garraiobide edo turismo-baliabideen ondotik pasatzen ez zenez haietara joateko bederatzi lotura aurreikusi dituzte, Donejakue bidearen inguruan beste 45 km gehiagoko sarea osatuz. Lotura horiek honakoak dira: Itxasperritik Errotzera, Itxasperritik Irur-

SAKANA

Ekintzailetasunari bulkada Andra Mari ikastolan

Andra Mari ikastolako DBHko 1. mailako ikasleak ekintzailetasuna bulkatzeko Europako programa esperimental batean parte hartu dute, YESict programa (Young Entrepreneurial Skills by ICT). Andra Mari ikastolarekin batera Antic (Lapurdi), Fh Joanneum Uni (Austria), Synthesis (Zipre), Nikosiako Unibertsitatea (Zipre) eta Vaeksthusthus Sjaelland (Danimarka) erakundeek parte hartu dute. Europako Batzordearen Erasmus + programak finantzatu du proiektua, 10 eta 15 urte arteko gazteen artean ekintzailetza sustatzea helburu duena.

Ikastolen Elkartearen lana, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoarekin eta FH Joanneum-ekin batera, ekintzailetasuna lantzeko unitate bat sortzea izan da. Sormena, kooperazioa, arazoen ebazpena eta norberaren buruarekiko konfiantza izatea landu nahi dira. Unitatean The Neighbourhood of My Dreams erronka landu da; hau da, nire ametsetako herria. Hura gauzatzeko, lehenik, ikasleen lantalde kooperatiboak sortu zituzten. Fase desberdinetan, ikasleek euren herrian dagoen arazoren bat edo falta den zerbait identifikatu dute, arazoa landu, irtenbidea pentsatu, marraztu eta maketa bat egin dute. Etxarri Aranazko ikastolan egindako gauza bera egin zuten Lapurdiko, Zipreko eta Danimarkako ikastetxe banatan.

Ikastolatik azaldu dutenez, proiektua "oso aberasgarria izan da. Ikaskuntza aktibo baten bidez, ikasleak oso motibaturik aritu dira lanean 3-4 egunetan zehar". Sustatu nahi izan den ekintzaile jarreraren osagaiak ere zerrendatu dizkigute: sormena, motibazioa, norbere buruarengan konfiantza... Bestetik, ikastolen planteamendu pedagogikoaren hezurdura diren konpetentzia metadiziplinarrak lantzeko baliagarria izan dela ere adierazi dute: pentsatzen eta ikasten ikasi, egiten eta ekiten ikasi, elkarrekin bizitzen ikasi, komunikatzen ikasi, norbera izaten ikasi.

Aurkezpena

Europako proiektua zenez, ikasleek ingelesez lan egin zuten. Bloga sortu behar izan zuten, eta proiekturako lantresna ordenagailua, sareko datu biltegiak edota papera izan dituzte. Maketak egiterakoan haiek egoki jo zituzten materialak. Ikasleek YESict europar proiektuko emaitzak Etxarriko Kultur etxean euskaraz aurkeztu zituzten martxoaren 29an.

Andra Mari Ikastolako DBHko 1. mailako ikasle hirukotea.

Bost proiektu aurkeztu zituzten: Etxarrirako kiroldegia; hondakinen birziklapena sustatzen duen eta, aldi berean, elbarrituendako egokituta dagoen zaborrontzia; Arbizun hutsik dagoen etxe baten aisialdirako erabilera; natur parkea Etxarrin egitea edo ibarrerako hondartza jartzea.

37.680 abelburu Urbasa-Andian

Joan den urtean natur parkeko larretan 356 ustiategitako 37.680 abelburu egon ziren, 2015ean (34.214) baino 3.466 animali gehiago. Abelburu horietatik 29.375 ardiak ziren, 4.674 behiak eta 3.680 zaldiak. Abeltzainen nahien arabera banatzen dira Urbasa-Andiara igotzen diren animaliak; Urbasan ibiltzen dira 190 ustiategitako 20.288 abelburu, eta gainerako 166 ustiategitako 17.392 abelburu Andiako Mendizerran ibiltzen dira. Antzina-antzinatik, abereek intentsibokiera bili dituzte Urbasa eta Andiako larreak, udako oinarrizko elikagai gisa. Antzinatik datorren eskubideari esker, edozein nafarrek du larre horiek denbora-mugarik eta abere kopuru mugarik gabe eta batere kanonik ordaindu gabe erabiltzeko eskubidea.

Natur-parkeko bisitariak, gora

Urbasa-Andia natur-parkeko bisitari kopurua hazi egin zen joan den urtean. Guztira 51.688 bisitari izan zuen, eta bost urtetako igoerarik handiena izan da. Bisitarien jatorriari dagokionez, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabakoak (% 39) eta Nafarroakoak (% 23), Kataluniakoak (% 10), Madrilgoak (% 8,5) eta Andaluziakoak (% 2,2) ziren bisitari gehienak; gainerako autonomia erkidegoetako bisitariak ere hartu zituen. Europako bisitari artean, Frantziakoak (% 35), Holandakoak (% 14,8) eta Alemaniakoak (% 9,9) hartu zituen.

Donejakue bidearen aurreproiektua



tzun eta Arakilgo herrietara, Arakil hegoaldetik, Aralarko monasteriora igoera, Uharte Arakilgo tren geltokia eta Arruazu, Arbizutik Ergoienako herrietara, Etxarriko tren geltokia eta kanpina, Altsasutik San Pedro zelaira, Olatzagutikoa.

Erromatar galtzadaren oinarria

Fran Valle de Tarazaga arkeologoa Uharte Arakilgo Zamartze monasterioan hainbat urtetan arkeologia indusketak egina da. Han Donejakuera joaten ziren erromesen aztarnak opatu ditu, baita Donejakue bidearen oinarria izan zen erromatar galtzada ere. Valle de Tarazagak Donejakue bideari buruz Uharte Arakilen hitzaldia eman zuen hilaren 1ean. Ondorioetan esan zuenez, "Niretako erromatar bidea berreskuratzeak zentzu gehiago du Donejakue bidearen berreskurapenaren testuinguruan egiten bada. Donejakue bidera jendea bueltatzen bada eta erromatar bide horrekin lotzen badu, nahiz eta beti jatorrizko erromatar bidetik ez izan, jendeak ulertzea bide-sare horrek antzinatasun hori duela, pertzepzio horrek osotasun ikuspegia ederra ematen dio".

Arkeologoak gogorarazi zuenez, "Astorga eta Bordele lotzen duen erromatar bide sareak egituratu zituen komunitateen garapenaren oinarriak ezarri zituen. Erromatarrak iritsi zirenean hemen zegoen gizarte sistema guztiz eraldatu zuten. Mendiaren alturaren erdian bizi ziren. Herrien erreferentziak hurbileko puntuak ziren. Egun ezagutzen dugun komunikazio bide-sare hori erromatarrek ezarri zuten. Erromatarrek utzitako horretan oinarritu gara ondorengo mendeetan". Eta gaineratu zuen, "erromatar galtzadak gaur egun jarraipena du, autobia edo trenbide moduan. Erromatarrek ezarritako komunikazio sistema batetik joateko modu desberdinak dira. Buruan ditugun mugikortasun sistemak erromatar sistema horretatik oinordetzan hartu dugu".

Valle de Tarazagak azaldu zuenez, "baliteke Donejakue bidea ibilbide luzeen berreskurapenaren hasiera izatea. Jakina, bazegoen batera eta bestera mugitzen zenik. Baina Donejakue bideak Erromatar Inperioaren galerarekin galdu zen ibilbide kontzeptu bat berreskuratu zuen Erdi Aroko pentsaeran. Ibilbide luzeko bide horien buru-patroiak tokiko jendeari pasa zizkioten. Galtzadatik zetorrenaren eraginpean zeuden. Donejakue bideak zure auzotik aparte begiratzeko aukera ekarri zuen Europara". +www.guaixe.eus

Erromatar galtzadaren tipologia

Ez da filmetako harlauzazko horietakoa. Sakana zeharkatzen zuena nahiko ohikoa da. Bloke nahiko handiz egindako zimendua du. Haren gainean errodadura kapa dago, trinkotutako legarraz egina. Goiko kapa horrek gogorra izan behar du, iraun dezan. Oso eraikuntza ona da. 6 metro zabal ditu induskatutako zatiak. Galtzadak ertzak ditu. Konponketa arrastoak daude. Ez dakite ezpondarik zuen. Hirigunetik kanpo opatu nahiko lukete, nolakoa den jakiteko.

» Altsasu

Konpost festa, birziklatzea sustatzeko

Konposta nola bahetzen duten ikusten.

Otadia aldeko auzotarren (Martin Zelaia eta Javi Bergara) eta Sakanako Mankomunitatearen Hondakin Zerbitzuaren ekimenez konpost festa egin zen larunbatean. Otadiako auzokonpostagailura hura erabiltzen duten eta ez duen jendea elkartu zen. Konposta jaso bai, baina nola egiten den ere jakin nahi izan zuten askok. Auzo-konpostagailuaren metro kuboko sei gorputzak zabaldu zituzten, jendeak ikus zitzan. Baita egindakoa atera, bahetu, zakutan sartu eta eramateko. Mank-eko hondakin hezitzaile Beñat Agirrek konpostaren kalitate ona zela adierazi zuen.

Baratzak edo loreontzietako lurra aberasteko baliagarria da konposta, ongarri bat da. Baratzean zuzenean bota daiteke, baina etxeetan bi heren lur eta beste bat konpost nahastuta erabili behar da. Aurten ez dute herriz herri banatuko. Mank-ek Arbizun duen hondakindegian konposta dago eta nahi dena har daiteke, 7:00etatik 14:00etara. Pala eta zakua eramatea komeni da.

5. edukiontzia

Altsasun hondakinen gaikako bilketa %27koa da gaur egun. Europatik agindua dago 2020rako %50ekoa izan behar duela. Horregatik, Mank-ek eta Altsasuko Udalak edukiontzi marroia jartzea erabaki zuten eta urte bukaerarako gaikako bilketa %65era igotzea. Horrek esan nahi du 2.260 etxebizitzek eman beharko luketela izena 5. edukiontzia erabiltzeko, Altsasuko %60. Sistema berria ezartzeko hilabete eskas falta denean %8,55ek besterik ez dute izena eman. Datuak ikusita, Mank eta udala zer egin aztertzen hasi dira.
5. edukiontzia erabiltzeko izena eman nahi dutenek asteazkenetan Baratzekobideko lokomotoratik pasa daitezke, 10:00etatik 13:00etara edo 17:00etatik 19:00etara. 900 730 450 telefonora ere hots egin daiteke.

» Irurtzun

Errefuxiatuen aldeko 2.400 euro jaso dira

Itxipuru elkarteak antolatutako bigarren eskuko azoka, elkartasun afari, pintxo-potearekin, material salmenta eta jendeak egindako diru ekarpenak. Horien guztien bidez 2.400 euro pasa jaso dira azken bi asteburuetan Irurtzunen. Oraingoan diru hori Nafarroako suhiltzaileek sustatzen duten Help-Na elkartearendako izanen da. Diru hori errefuxiatuek Europan bizi duten egoera arintzera bideratuko dute.

Hain zuzen ere, errefuxiatuen egoeraren berri ematen duen Just people filma ikusteko aukera izan zen larunbatean Irurtzungo Iratxo elkartean. Ondorengo elkartasun afarian 38 pertsona elkartu ziren. Platera eta platera artean Hernaniko arte aplikatuetako eskolako ikasleen lanak enkantean jarri zituzten.

SAKANA

Euskaldundu bazara, omenaldia merezi duzu!

Hala uste dute behintzat Sakanako AEK-k, Mintzakide programak eta Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak. Helduak izatean euskara ikasi duten sakandarrak omentzeko eLe festa antolatu dute, bigarrenez. Maiatzaren 6an ospatuko da, Altsasuko Alde Zaharreko festen barruan. Euskara praktikatu eta bizi Sakanan! leloarekin, euskal hiztun berri horien ahalegina aitortu eta Sakanako euskal hiztunen komunitatera ongietorria emanen zaie.

Festaren antolatzaileek euskaldundu diren edo horretan ari diren sakandarrei deia egin diete: euskarako B2 maila bukatzen ari bazara edo mintzapraktika programa batean bazaude, eta eLe festan parte hartu nahi baduzu, jarri harremanetan Euskara Zerbitzuarekin apirilaren 28rako (948 464 840 edo euskara2@sakana-mank.eus).

Mintzodromoa izanen da eLe-festan.

Non erabili

PATXI GALARZA
IRURTZUN
% 5eko deskontua harategian eta supermerkatuan 100 €rengatik txistorra opari.

JM AGIRRE HARATEGIA
LAKUNTZA
50 €ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

DANTZALEKU TABERNA
ALTSASU
Bazkarietan eta afarietan kafea edo kopa doan.

KAXETA
ETXARRI ARANATZ
% 5eko deskontua irakurketako liburuetan.

KATE INFORMATIKA
IRURTZUN
% 5eko deskontua 30 €tik gorako erosketan.

CITROËN SAN MIGUEL
ALTSASU
total olioetan %30eko deskontua. Pneumatikoen aldaketetan %30 deskontua.

IRUBIDE JATETXEA
ALTSASU
Gosaria (kafea+pintxoa edo bolloa+laranja zuku natural) 2,50€.

SAKANA OPTIKA
ALTSASU
%15eko deskontua graduatutako betaurreko osoetan (montura+lenteak). %10eko deskontua beste edozein artikulutan eta ikusmenaren errebisioa doan.

HOSTOAK LOREGINTZA
LAKUNTZA
40 €ko erosketarekin, %10eko deskontua lorontzietan.

www.guaixe.eus-en zerrenda osoa ikusgai

BAZKIDETZA 50€
948 564 275

» Etxarri Aranatz

Erraldoi konpartsa sortzeko bilera

Apirilaren 25ean, asteartean, 17:30ean maisu-maistren etxea zenean

Etxarri Aranazko erraldoien konpartsak lau erraldoi izanen ditu. Haietako bi aurretik daudenak eta berritzen direnak dira eta egiten ari diren beste bi berri. Horiek behar bezala prestatzen herriko lau eskulangile ari dira. Etxarrirekin lotura duten lau pertsonaia izanen dira herriko erraldoiak. Sortzaileek lana despeditua dutenerako konpartsa bat sortua egotea da asmoa. Erraldoiak mugitu, gidatu, dantzatu, zaintzeko eta bestelako egitekoetarako jendea behar da. Horregatik, Etxarri Aranazko Udalak bilera deialdia egin du.

SAKANA

Aste Santua santutegian

Fededun kristauen data garrantzitsuak dira hurrengo egunetakoak, Aste Santua hain zuzen ere. Sakanako elizetan aparteko elizkizunak eginen dira, baita Aralarko santutegian ere. Ostegun eta Ostiral Santuetan mezak 16:00etan izanen dira. Aurreko urteetan baino ordu bat lehenago hasiko dira elizkizunak bi egun horietan eta santutegitik ordu aldaketa kontuan izateko eskatu dute. Larunbateko meza 20:00etan izanen da eta Pazko Egunekoa (igandea), berriz, 12:30ean. Azken egun horretan Aralarko aingeruaren irudia santutegia utzi eta Baraibarrerako bidea hartuko du 16:30ean. Hala urteroko herriz herriko errondari ekinen dio goiaingeruaren irudiak.

»

Ikasle eguna ospatu da

Ikasle Abertzaleak taldeak Sakanako ikasle eguna antolatu zuen atzoko. *Apurtu eta eraiki* lelopean euskal eskola nazionalaren aldeko aldarrikapena egin zuten. 13:30ean abiaraziko zuten egitaraua institututik abiarazitako *errebalidak desobeditu* leloa zuen manifestazioarekin. Bazkaria egin zuten dute Zubiondo elkartean. Bazkaldu ondoren, ikasle kalejira izan zen da. Ibilbidean ikasle mosaikoa egin zuten eta mozkorkiroletan aritu ziren. Ikasle eguneko egitaraua Ingo al deue? eta Desperdizio taldeen kontzertuekin despeditu zen.

» Altsasu

Ostiral Santua, errepublikaren eguna eta bosgarren hilabetea espetxean

Horiek guztiak biltzen ditu apirilaren 14ak, ostiralak, aurten. Ferietako liskarragatik egindako sarekadaren 5. hilabetea beteko da eta auzipetuetako hiru, Adur, Jokin eta Oihan, Soto del Real espetxean daude preso. Haien berehalako askatasuna aldarrikatzeko eskatuz ostiralero modua kontzentrazioa eginen da udaletxe parean, 19:00etan. Berezia izanen da, bost hilabeteen karakterizazioa egin nahi baitute han.

Baina ez da hori asteburuko ekitaldi bakarra izanen. Larunbatean futbol 7 txapelketa jokatuko da.

Martxoan kazolkada bat antolatu zen herritik zehar.

Gainera, apirilaren 28 eta 29rako kulturaz aske asteburua prestatzen ari dira. Herriko hainbat eragile ugarik modu bateratuan eta antolatuan parte hartuko dutela iragarri dute. Programa aurkeztu eta iradokizunak jasotzeko gaur batzarra eginen da.

SAKANA / Urdiain

Benignotarrei saria Vianan

Artisau azoka antolatu zuen Vianako ikastolak 30. aldiz igandean. Azoka baliatuz Erentzun fundazioak euskararen alde Vianan lan egin duten pertsonak eta taldeak omentzen ditu. "Gure herrian euskararen aldeko auzolan handi horretan laguntza saritzerakoan Vianan ezezagunak diren baina bitan euren auzolanaren arrastoa utzi duen talde bati erreparatu diogu", azaldu zuen fundazioko buru Txema Yaniz Diaz de Ceriok.

Benigno Mendiaren inguruan sortutako taldeaz ari zen. "Mendiak batu zuen auzolan izpirituak hor segitzen du. Horregatik, bere jendea, lagunak, laguntzaileak eta guztiek pixka bat jarriz zerbait handia egin daitekeela, auzolanean sinisten duten guztiak omendu nahi ditugu". 2005az geroztik

Benignotarrek talde argazkia atera zuten.

Nafarroa Oinezetan paella bazkaria egin eta zerbitzatzeko taldeak egiten duen lana aitortu zuten Vianan, non bitan egon diren lanean. Erentzungo Eskortak saria Mari Jose Aierbek eta Aitor Irigoienek jaso eta esker ona azaldu zuten. Taldeko hainbat kide presente izan ziren Vianan, autobusez joan baitziren.

» Altsasu

Errepublikaren aldarrikapena biziberritzera

Apirilaren 22an, larunbatean, 12:00etan udaletxe pareko oroigarrian

Soldadu Langile Batailoietan ibili zirenen omenezko oroigarriaren inguruan elkartuko dira, atzera ere, errepublikar zaleak. 1931Ko apirilaren 14an Espainian II. Errepublika aldarrikatzeko ekitaldia antolatu du Izquierda Unidak. Batailoietan edo errepublikaren alde aritu ziren guztien omenez lore eskaintza eginen da. Manifestua irakurriko da eta ondoren, guztiendako auzatea izanen da. Errepublikako banderak eta musika ekitaldi guztian presente egonen dira.

» Irurtzun

Emaztea kolpatzeagatik atxilotua

Emaztea kolpatzeagatik Foruzaingoak 21 urteko gizonezko irurtzundarra atxilotu du asteburuan. Atxiloketa eragin zuten gertaerak Ezkabarten gertatu ziren, NA-2410 errepidearen ondoan. Handik pasatzen ari zela, zerbitzutik kanpo zegoen Polizia Nazionaleko agente batek auto bat bide bazterrean geldituta ikusi zuen. Baita soroan zehar gizonezko bat emakumezko baten atzetik korrika zihoala eta hainbatetan kolpatzen zuela. Bitartean, autoan 2 urteko alaba zegoen.
Emakumezkoa gizonezkoari izkin egin eta handik pasatzen ziren autoei laguntza eskatu zien, baina ez zioten jaramonik egin. Poliziak lagundu egin zion eta 112 telefonora hots egin zuen. Foruzainek gizonezkoa atxilotu eta epailearen aurrera eraman zuten. Ama-alaba, berriz, etxera eraman zituzten.
Bestalde, Foruzaingoak jakinarazi du asteburuan bilatze eta atxilotze agindua zuen 20 urteko gazte altsasuarra atxilotu duela. Iruñeko 4. Zigor Auzitegiak emandako agindua zen. Epailearen aurretik pasa ondoren gaztea aske gelditu zen.

» Altsasu

Santander Bankuaren bulegoa lapurtu dute

Buru-berokia eta eskularruak jantziak zituen gizonezko bat izan zen Santander Bankuan asteartean lapurreta egin zuena. Bankura errebolberra eskutan zuela sartu zen 9:00etan, eta kutxan zegoen dirua emateko eskatu zuen. Une horretan zuzendaria, zuzendari-ordea eta komertziala zeuden bulegoan, baita bezero bat ere. Lapurrak kutxan zegoen dirua eraman zuen, 18.500 euro. Altzania kaleko bankuko lapurretaren ikerketa Guardia Civila egiten ari da.

kirola >>

Pilota

Irurtzungo Pilota Txapelketa: asteburuko emaitzak

Lau partida jokatu ziren Irurtzunen. Aste Santuan ez da partidarik jokatuko

Asteburuan XXV. Irurtzungo Txapelketako bigarren jardunaldia jokatu da. Txapelketa honetan puntako pilotari afizionatuak dabiltza lehian, 8 bikote promesen mailan eta 28 bikote senior mailan. Aste Santuan ez da partidarik jokatuko.

Asteburuko emaitzak

Ostiralean:
Azketa-Atxa 5 / Antso-Aldutzin 22
Apezetxea-Lizeaga 14 / Adonis-Aranguren 22
Larunbatean:
Murgiondo-Aldabe 22 / Barbajero-Zuasti 18
Matxin-Elizegi 22 / Astiz-Landiribar 20

GRAVNI: Iparralderen kontra aritu zen Nafarroa

Yanira Aristorenak eta Maite Ruiz de Larramendik galdu egin zuten Iparraldekoen kontra

GRAVNI txapelketaren barruan, Iparralderen kontra aritu zen Nafarroa. Iparraldekoak gailendu ziren, jokatutako Trinketean, emakumezkoen pala argentinarreko nagusien mailan Amestoyk eta Mariscok (Iparralde) 30 eta 26 irabazi zieten Yanira Aristorenari eta Ruizi (Nafarroa).

NAFARROA GUTXIENEZ 22 FINALETAN EGONGO DA

GRAVNIko finalerdiak apirilaren 21 eta 23ren artean jokatuko dira eta final handiak, aldiz, apirilaren 29an. Modalitate batzuetan multzo bakoitzeko lehena zuzenean sailkatzen da final handirako eta, horrela, Nafarroako selekzioa dagoeneko 22 finaletan aritzeko sailkatu da, horietako 6 trinketean. Horretaz gain, jokoan dauden finalerdietan Nafarroako 17 talde lehiatuko dira.

Sakandarrak Josetxo Ezkurra Memorialean

Asteburuan Josetxo Ezkurra Memorialeko lau t´erdiko partidak jokatu dira. Sakandarrak ere bertan aritu dira.

Sakandarren emaitzak

Benjaminak:
Mikel Gaztañaga (Andoain) 14 – Igoa (Pilotajauku) 18

Jubenilak:
Joseba Albizuri (Amurrio) 18 – Mattin Petriati (Aldabide) 0
Josu Olaetxea (Aldabide) 0 / Aimar Ariztegi (Gure Txokoa) 18
Ruiz de Larramendi (Lapke) 18 / Andoni Goikoetxea (Aldabide) 11

Pilota

Zabaleta eta Ezkurdia, Buruz Burukoan

Zabaleta igandean hasiko da lehian, final hamaseirenetan, Mendizabal III.aren kontra. Ezkurdia final zortzietan sartuko da, apirilaren 23an, Jaunarena eta Retegi Biren arteko irabazlearen kontra

Asteartean aurkeztu zuten, Bilboko Itsas Museoan, 2017ko Buruz Burukoa, pilotako txapelketarik garrantzitsuena. Asteburu honetan hasiko da Buruz Burukoa eta maiatzaren 28ra arte luzatuko da.

Asteartean aurkeztu zen txapelketa, Bilboko Itsas Museoan.

16 pilotariak

16 pilotari lehiatuko dira guztira, 8 enpresa bakoitzeko. Asteburu honetan final hamaseirenak jokatuko dira. Untoriak Victorren kontra jokatuko du ostiralean Sorian, Albisuk Laso izango du aurkari larunbatean Iruñean, Jose Javier Zabaleta Mendizabal III.aren kontra ariko da igandean Lekeition eta Jaunarena Retegi Biren kontra lehiatuko da astelehenean Eibarren. Irabazleek Artola, Rezusta, Olaizola II.a eta Joseba Ezkurdia izanen dituzte zain final zortzirenetan. Eta final zortzirenetan gailentzen direnak Irribarria, Altuna III.a, Bengoetxea VI.a eta Urrutikoetxea izango dituzte aurkari. Ondoren, finalerdiak jokatuko dira, maiatzaren 13an eta 14an, eta final handia maiatzaren 28an jokatuko da, Bilbon.

Egungo txapeldun Irribarria da faborito nagusia, baina berak ez du hala ikusten. "Hemen ez dago ligaxkarik; egun txar bat, eta etxera".

Zabaleta eta Ezkurdia

Jose Javier Zabaletak igandean ekingo dio Buruz Burukoari, Lekeition. Mendizabal III.a izango du aurkari. Irabazleak Aimar Olaizolaren kontra jokatu beharko du apirilaren 22an Iruñean. Ondoren, final laurdenetan, Bengoetxea VI.a izango dute zain.

Bestalde, Jaunarenaren eta Retegi Biren arteko irabazlea izango du aurkari Joseba Ezkurdiak apirilaren 23an Gasteizen. Ondoren, Urrutikoetxea izanen du aurkari aurrera egiten duenak, final laurdenetan.

Bakaikoa, promoziokoan

2. Mailako Buruz Burukoa, promoziokoa, jokatuko du Joanes Bakaikoak. Etxarriarrak Jaka izanen du aurkari larunbatean Eibarren.

Mendi lasterketak

Beñat Katarain bigarrena Beran

XIII. Berako mendi maratoi erdia osatu zuten 530 korrikalarietatik soilik Oier Ariznabarreta sartu zen bere aurretik

Eguzkiarekin eta beroarekin jokatu zen aurtengo Berako mendi maratoi erdia (21 km). 1.308 metroko desnibel positiboa zuen proba ezagunean, Manttale eta Larun (900 m) gainditu behar izan zituzten, tartean, mendi lasterketa osatu zuten 530 korrikalariek. Oier Ariznabarreta durangarrak sekulako ahalegina egin zuen eta lehertuta iritsi zen helmugara, bakarrik (1:44:05); laugarren urtez jarraian Berako proba irabaztea lortu zuen bizkaitarrak. 2 minutu pasara sartu zen Beñat Katarain Razkin lakuntzarra (1:46:57), sekulako lasterketa egin eta gero. Denboraldia ongi hasi zuen lakuntzarrak baina progresioan dagoela erakusten ari da behin eta berriz. Emakumezkoetan Maria Zorrozak irabazi zuen (2:02:09).

Jose Luis Beraza uhartearra 16.a sailkatu zen (1:55:06), probako bigarren beteranoa. Guztira, 13 sakandarrek lortu zuten proba despeditzea eta Maite Zabaleta izan zen emakume bakarra, helmugan 440.a (2:48:44).

Beñat Katarain, Berako proban.

Bedia, Mendaro...

Larunbatean, Bedian, III. Kolazinoko Mendi Eguna jokatu zen, 24 km-ko proba. 110 korrikalarik lortu zuten lasterketa bukatzea eta Julen Ozaeta durangarra gailendu zen (2:11:22). Uharte Arakilgo Juanjo Goikoetxeak 11. postuan iritsi zen helmugara (2:29:53).

Igandean, Mendaron, VII. Kilimon Mendaro Traila jokatu zen (23 km). Julen Larruzea larrabetzuarra izan zen azkarrena (1:56:26). 203 korrikalariren artean Iñaki Lacalle olaztiarra 143.a sailkatu zen (3:00:13).

Sakandarrak XIII. Berako mendi maratoi erdian (21 km)

1.Oier Ariznabarreta (Durango)	1:44:05
2.Beñat Katarain (Lak.)	1:46:57
16.Jose Luis Beraza (Uhar.)	1:55:06
66.Alatz Agirre (Arb.)	2:06:51
170.Fran Araña (Arb.)	2:18:44
223.J. Javier Beregaña (Uhar.)	2:23:00
232.David Mutiloa (Irur.)	2:23:59
340.Iban Verdugo (Etx.)	2:35:43
341.Aitor Salinas (Etx.)	2:35:44
367.Javier Gonzalo (Uhar.)	2:39:34
379.Ibai Arrese (Etx.)	2:40:50
440.Maite Zabaleta (Etx.)	2:48:44
441.Joxeja Maiza (Etx.)	2:48:44
460.Jon Goikoetxea (Etx)	2:52:50

Aritz Munarriz bigarrena Enkarterri Trail Extremen

Asteburuan jokatu da I. Enkarterri Extrem Trails mendi lasterketa, Zaramillon. Aritz Munarriz etxarriarra 69 km-ko proban zen. Beroak are gehiago gogortu zuen proba eta korrikalariek lan itzela egin behar izan zuten. Arkaitz Iraeta izan zen txapelduna (8:56:41). Bigarrena helmugaratu zen Munarriz, 9 ordu eta bost minutu pasa korrikan eman ondoren (9:05:25) eta lan bikaina eginda.

Kiroldegia

"Kirola Euskaraz" jardunaldiak Iruñean

Apirilaren 27an, 10:00etatik aurrera Larrabide Estadioan

"Kirola Euskaraz, hausnarketak eta erronkak" lelopean jardunaldia antolatu dute Nafarroako Gobernuak, Euskarabideak eta Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak apirilaren 27an, osteguna rekin, goizeko 10:00etatik 18:00etara Iruñeko Larrabide Estadioko KAIMZ-Kirola Azterlan Ikerketa eta Medikuntzako Zentroan –Zangoza kalea, 34, Iruñea–.
Jardunaldiak ondokoendako prestatu dira: udaletako kirol eta euskara teknikariendako, kirol taldeetako arduradun eta entrenatzaileendako, kirol federazioetako teknikari eta arduradunendako, ikastetxeetako kirol taldeetako arduradun eta guraso elkarteendako, gorputz heziketako irakasleendako eta interesa duen edonorendako. 100 pertsonarendako tokia dago eta izena ematea zabalik dago, apirilaren 23ra arte, hurrengo loturan: https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSeKARA6Nd1Q5kVYiGKA3zjbll51grqC6lQZnmukbaqMQZAurA/viewform?c=0&w=1

Sakanako esperientzia

Jardunaldietan azalduko dituzten esperientzien artean, Sakanako Mankomunitateko Amaia Gerrikagoitia kirol teknikaria eta Izaskun Errazkin euskara teknikariak euskara kirol ikastaroetan txertatzeko Sakanako esperientzia emango dute ezagutzera.

Egitaraua

-10:00etatik 10:30era: Jardunaldien aurkezpena: Ruben Goñi, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuko zuzendaria eta Mikel Arregi, Euskarabideko zuzendaria.

-10:30etik 11:45era: "Kirola: baliabide hezitzaile eta euskalduntzailea". Luis Mari Zulaika, EHUko irakaslea.

-12:15etik 13:00etara: "Kirola haurgaztetxo euskaldunen hizkuntza sozializazioan: premiak eta aukerak". Paula Kasares, NUP, soziolinguistikan doktorea.

-13:00etatik 14:00etara: "Euskara kiroleanean: marka eta erronka". Jokin Larrañaga, Arabako Foru Aldundiko Euskara Zerbitzuko burua.

-14:00etan: Bazkaria Printzearen Gotorlekuan.

-16:00etatik 17:00etara: "Esperientzia positiboak ezagutuz". Fernando Molina, Burlata Futbol Eskola, Pablo Murias, kirol teknikaria, Irungo ereduaz, Amaia Gerrikagoitia eta Izaskun Errazkin, Euskara kirol ikastaroetan, Sakanako esperientziaz, eta Esther Lakasta eta Larraitz Muñoa, Dindaia, aisialdian erabilera sustatzeko programaz.

-17:00etatik 18:00etara, mahai ingurua: "Kirola eta euskararen inguruko harremanak". Moderatzailea: Juan Kruz Lakasta (Euskalerria irratia). Hizlariak: Luis Mari Zulaika, irakaslea, Iñaki Perurena, harri-jasotzailea, Abel Barriola, pilotaria, Uxue Fraile, atleta eta Muriel Ruiz de Larramendi, eskalatzailea.

-18:10ean: Jardunaldiaren ondorioak eta proposamen berriak.

Atletismoa

12 sakandar Iruñeko Emakumeen Lasterketan

Horietatik 10 emakumezkoak ziren

Sakandarrak II. Iruñeko Emakumeen Lasterketan (Mistoa)

Laburra (5,7 km)	
1.Juan Moreno:	18:04
4.Luis Areta (Lak):	20:7
21.Amaia Aristu (Olaz.):	25:08
109.Iris Larrañeta (Irur.):	32:29
110.Naiara Mundiñano (Etx.):	32:42
111.Josune Razkin (Etx.):	32:42
118.Jessica Fernandez (Irur.):	32:52
130.Leire Angulo (Irur.):	33:13
Luzea (11 km)	
1.Javier Nagore:	38:55
14.Adur Senar (Lak):	45:31
121.Leire Mugika (Alts.):	1:03:26
122.Olatz Monreal (Alts.):	1:03:26
126.Maite Duran (Alts.):	1:03:52
127.Susana Baraibar (Uhar.):	1:04:07

Larunbatean 335 korrikalarik hartu zuten parte II. Iruñeko Emakumeen Lasterketan. Gehienak, %63, emakumeak ziren. Bi aukera zeuden: proba motza (5,7 km) eta luzea (11 km). Proba motzean Juan Moreno gailendu zen (18:04) eta Luis Areta lakuntzarra laugarrena sailkatu zen (20:47). Amaia Aristu izan zen lehen emakume sakandarra, 21. postuan (25:08). Eta proba luzean Javier Nagore gailendu zen (38:55). Adur Senar izan zen lehen sakandarra, helmugan 14.a (45:31) eta Leire Mugika lehen emakume sakandarra, sailkapenean 121.a (1:03:26). Guztira 12 sakandar lehiatu ziren, 10 emakume eta 2 gizon.

Antton Zelaia 11.a Leitzan

Larunbatean 122 korrikalarik hartu zuten parte Leizako Herri Kros Herrikoian. Proba luzea (9 km) eta motza (4,5 km) izan zituzten aukeran. Aitor Mibenza (31:43) eta Maialen Muñoz (41:43) izan ziren proba luzeko txapeldunak. Antton Zelaia urdiaindarra 11.a sailkatu zen (37:29).

Futbola

20 talde lehian

Apirilaren 15ean, larunbatean, goizeko 8:00etatik aurrera Altsasuko Dantzalekuko futbol zelaietan

Altsasukoak Aske Futbol 7 Lehiaketa antolatu dute larunbatean, Altsasuko ferietako liskarren ondoriozauzipetutako gazteen alde. Ekimena arrakastatsua izan da, 20 taldek eman baitute izena.

Txapelketa larunbatean jokatuko da, goizeko 8:00etatik hasita, Altsasuko Dantzalekuko futbol zelaietan. Antolakuntzatik adierazi digutenez, 20 talde horiek 5 multzotan banatu dituzte eta goizean ligaxka jokatuko da multzo bakoitzean, arratsaldeko hiru t´erdiak arte. "Ligaxka honetako 8 talde onenak azken kanporaketak jokatzeko sailkatuko dira. Aurreikusten dugu final handia arratsaldeko zazpi t´erdiak edo zortziak aldera jokatuko dela" adierazi digute antolakuntzatik. Taldeak Sakanakoak, Araiakoak, Lekunberrikoak eta Iruñekoak direla gaineratu dute, eta txapelketa polita aurreikusten dela.

Lehengo hiru taldeek saria izanen dute eta giro polita espero da larunbatean Dantzalekun. Antolakuntzak barra jarriko du, eta zer jan eta edan egongo da. Bertara gerturatzeko deia egin dute.

20 taldeak

1.Taldea: Oh Yeah, The Magiks, Mailastuek eta Aston Birra.

2.Taldea: La Garden, Nexkixek, Jaimes eta Inter de mitente.

3.Taldea: Kaimanak, Salketemeto, Eldense eta Aitziber.

4.Taldea: La Peña, OGA, Beti Kozkor eta Puticlub Manoli.

5.Taldea: Vodka Juniors, Riki Team, Leones del Atlas eta Bizitxirul.

#AltsasukoakAske Futbol 7 Lehiaketa. Goizeko ligaxkako partidak

8:00etik 8:30era:
Oh Yeah – The Magiks
Mailastuek – Aston Birra
8:30etik 9:00etara:
La Garden – Nexkixek
Jaimes – Inter de mitente
9:00etatik 9:30era:
Kaimanak – Salketemeto
Eldense – Aitziber
9:30etik 10:00etara:
Vodka Juniors – Riki Team
Leones del Atlas – Bizertxirul
10:00etatik 10:30era:
OGA – La Peña
Oh Yeah – Mailastuek
10:30etik 11:00etara:
The Magiks – Aston Birra
La garden – Jaimes
11:00etatik 11:30era:
Nexkixek Inter de mitente
Kaimanak – Eldense
11:30etik 12:00etara:
Salketemeto – Aitziber
Vodka juniors – Leones del Atlas
12:30etik 13:00etara:
Riki Team – Bizertxirul
Oh Yeah – Aston Birra
13:00etatik 13:30era:
Beti Kozkor – OGA
The Magicks – Mailastuek
13:30etik 14:00etara:
Nexkixek – Jaimes
Kaimanak – Aitziber
14:00etatik 14:30era:
Salketemeto – Eldense
La Peña ¬ Puticlub Manoli
14:30etik 15:00etara:
La Garden – Inter de mitente
Beti Kozkor – Puticlub Manoli
15:00etik 15:30era:
Vodka juniors – Bizertxirul
Riki Team – Leones del Atlas

Futbola

FEDERATUTAKO TXAPELKETA

PREFERENTE MAILA. 1. multzoa

26. JARDUNALDIA

LAGUN ARTEA 3 - AIBARES 3
ETXARRI ARANATZ 1 - AMIGO 3
Zelai Berrin, partida gaizki hasi zen lakuntzarrendako, 2. minutuan arbitroak Domingez atezaina aldageletara bidali baitzuen. Hortaz, partida guztia jokalari bat gutxiagorekin egin behar izan zuten. Hala ere, Ollok, penaltiz eta Odonek, Lagun aurreratu zuten. 2. zatian Aibares partidari buelta ematera atera zen. Bina berdindu zuten, eta nahiz eta Enekok Lagunen hirugarrena sartu, 91. minutuan, partida despeditzear, hiruna berdintzea lortu zuen Aibaresek.
San Donaton jokatutako partida oso lehiatua izan zen. Etxarri behin eta berriz saiatu zen, baina ez zuten jokaldia borobiltzea lortzen. Aldiz, Amigók bere aukera eskasak ongi baliatu zituen eta bi gol sartu zituen. Jurgik gola sartu zuen Etxarrirendako eta etengabe saiatu zen Etxarri, baina kontraeraso batean Amigóren hirugarren gola iritsi zen eta horrela bukatu zen partida.

Sailkapena >>

1.	Bidezarra	61 p
5.	Lagun Artea	38 p
8.	Etxarri Aranatz	36 p

Hurrengo jardunaldia

AMIGÓ – LAGUN ARTEA
(Apirilaren 23-24ko asteburuan)
URROZTARRA – ETXARRI ARANATZ
(Apirilaren 23-24ko asteburuan)

ERREGIONAL MAILA. KOPA

KOPAKO 5. JARDUNALDIA. C MULTZOA

ALTSASU 4 – BURLADES 0
Gorritxoek garaipen oso erosoa lortu zuten larunbatean Burladesen kontra. Altsasuk hasieratik hartu zuen kontrola. 2. zatian iritsi ziren golak. Joseba Lizarragak bi sartu zituen eta Javi Guisadok eta Paulette Vergarak bana.

EMAKUMEZKOEN ERREGIONALA

23. JARDUNALDIA

OSASUNA 13 – ALTSASU 0

Sailkapena >>

1.	Osasuna	61 p
12.	Altsasu	18 p

Hurrengo jardunaldia

ALTSASU – ITAROA HUARTE
(Apirilaren 23-24ko asteburuan)

ELOMENDIKO TXAPELKETA

25. JARDUNALDIA

ZALDUA 5 – MODERNILLO 1

Sailkapena >>

1.	Unziti	63 p
3.	Zaldua	49 p

Asteburuko jardunaldia

Asteburu honetan ez dago jardunaldirik.

Areto futbola

Magna Gurpeak Bartzelona liderra aurkari

Igandean, 17:00etan, Bartzelonan

Asteburu honetan ez da lehen mailako areto futbol ligako partidarik jokatu, Eurokoparako sailkatzeko torneoa jokatu baitute selekzioek Polonian. Magna Gurpeako Rafa Usin aritu da Espainiarekin. Dani Saldise irurtzundarra ere aritzekoa zen baina ezin izan du, erresonantzia batean ezkerreko izterreko soleoan zuntz-haustura duela ikusi baitzuten. Ordutik, lesiotik osatzen dabil irurtzundarra.

Sailkapen orokorrean Bartzelona da lehen mailako ligako liderra (67 puntu). Magna Gurpea Xota seigarrena da (45 puntu), zazpigarrena den Peñiscolarekin puntutara berdinduta. Asteburu honetan ligako 28. jardunaldia jokatuko da. Hain zuzen ere Bartzelona liderra izango du aurkari Magna Gurpeak, apirilaren 16an, igandean, 17:00etan, Bartzelonan.

Errege Kopako finalerako sarreren salmenta

Magna Gurpea Xotak eta El Pozo Murciak maiatzaren 6an jokatuko dute Errege Kopako finala, 20:15ean, Guadalajaran (Eurosport). Sarrerak 10 eurotan jarriko dira salgai eta Magna Gurpeak eta Jaenek apirilaren 21ean Anaitasunan jokatuko duten partidan erosi ahalko dira. Hortik aurrera, apirilaren 24tik maiatzaren 4ra erosi ahalko dira, klubeko egoitzean.

Automobilismoa

Fernandez eta Askargorta podiumean

Nafarroako Zirkuituko Lur Gaineko Rallyko Nafarroako Lur Gaineko Rallye Txapelketan hirugarrenak sailkatu ziren

Asteburuan Nafarroako Zirkuituko Lur Gaineko Rallya 2017 jokatu da. Bi maila izan dira, Espainiako Lur Gaineko Rallya eta Nafarroako Lur Gaineko Rallye Txapelketa. Azken honetako sari bat Olaztira etorri da, Aitor Fernandez pilotua eta Iker Askargorta kopilotua hirugarrenak sailkatu baitziren bere Seat Ibizarekin (1:05:18), Txema Uzkudun eta Iker Iturri irabazleengatik (Mitsubishi Lancer Evo VIII) lau minutu pasara (1:01:00).

Futbola

Sakanako Futbol Topaketak: kimuak bueltan

Kimuek apirilaren 23an 12. jardunaldia izango dute jokoan, Altsasun eta Etxarri Aranatzen

Atsedenaldi baten ondoren, apirilaren 23an itzuliko dira kimuen mailakoen Sakanako Futbol Topaketak. 12. jardunaldia jokatuko dute. Benjaminek, aldiz, atsedena hartuko dute maiatzaren 7ra arte.

Sakanako Futbol Topaketak: Kimuen 12. jardunaldia (apirilak 23)

Dantzalekun
10:00etan: Tipi Tapa – Lagun Artea
10:00etan: Kaixo – Urdiain
Etxarri Aranatzen
12:30ean: Etxarri – Sutegi

Zumba

Arbizuko Zumbathon Solidarioa antolatu dute

Esklerosi anitza duen Virginia Saezen aldeko ekitaldia izango da. Apirilaren 23an, 11:00etatik 13:00etara, Arbizuko kiroldegian

Apirilaren 23an Arbizuko Zumbathon Solidarioa antolatu dute, esklerosi anitza gaixotasuna duen Virginia Saez arbizuarraren aldeko ekitaldia. 11:00etan hasiko da ekitaldia eta 13:00ak arte, zumbako erritmoei jarraiki, ederki gozatuko dute Arbizuko kiroldegian bilduko diren kirolariek eta ikusleek. Kirolariek 5 euroko sarrera ordainduko dute eta ikusleek, aldiz, euro batekoa.

Ekitaldian zumbathon solidarioaren kamisetak jarriko dituzte salgai eta, horretaz gain, hainbat zozketa eginen dira: Joseba Ezkurdiaren kamiseta, Vendetta taldearen kamiseta eta CDa, Eroskiren bi saski, Osasuna, Eibar, Erreala eta Baskoniaren kamisetak, Movistarren maillota eta beste. Julian Iantzik ere El Conquiseko ekipamendu bat eman du jaialdi solidario honetarako.

Antolatzaileek iragarri dutenez, Joseba Ezkurdiak, Julian Iantzik eta Maria Eskisabelek hartuko dute parte ekitaldian.

Hau ez da Virginia Saezen aldeko lehen ekimena. Aurretik, gurpildun aulkia jaso zuen Saezek, Gasteizko mutil batek emana, eta Arbizuko ekokanpinean boluntario batek emandako saskia zozketatu zen.

Iraupen eskia

Eskiatzaile txapeldunak baditugu

Benar Garziandia Goñi etxarriarra Espainiako Iraupen Eskiko master II mailan hirugarrena sailkatu da eta bere alaba Olga Garziandia kadete mailan 10.a izan da

Eskiatzaile bikainak ditugu Sakanan. Horietako bi dira Benar Garziandia Goñi etxarriarra eta bere alaba Olga Garziandia Ijurko. Biak Uharte Ipar Eski Taldeko kideak dira eta bertakoekin lehiatzen dira. Aurten, esaterako, Espainiako Iraupen Eskiko Kopan hartu dute parte. 7-8 probek puntuatzen zuten Koparako eta, tartean, Benasquen, Tuixenten, Candanchun eta Baqueira-Bereten, bitan, jokatu dira. Azken proba Baqueira Beretek hartu zuen, martxoaren 25ean.

Aita-alabak sekulako maila eman dute Espainiako Iraupen Eskiko Kopan. Master II mailan lehiatu da Bernar Garziandia, eta etxarriarrak podiumera igotzeko aukera izan zuen, proba guztien denbora kontuan hartuta kopako master mailan hirugarrena sailkatu baita etxarriarra. Eta zer esan Olga Garziandiak lortutakoaz? Belaunean arazo bat tarteko, gaixotasunari aurre egiteaz gain, oinazeak zituela ere Kopan aritu da eta kadete mailan hamargarrena sailkatu da, meritu handiz. "Belauneko arazoaz errekuperatzen zen bitartean lehiatu da eta harrigarriena eskian aritzeko zuen gogoa zen. Ez zegoen %100ean, inondik inora, eta oinazeekin aritu da. Kopako 10. postu hori meritu handikoa da. Errekuperatu da, hori da pozgarriena, eta eskian lehiatzeko gogo izugarriarekin dago" aipatu digu bere amak, Izaskun Ijurkok.

Benar eta Olga Garziandiak primerako lana egin dute Espainiako Kopan. UTZITAKOA

Negua atzean gelditu den honetan, aurki rollerski probatan lehiatzen hasiko dira etxarriar hauek. Modalitate honetan ere zorterik onena opa diegu.

Txirrindularitza

Burunda Saria ate joka

Apirilaren 23an jokatuko da kadeteen mailako proba, Altsasun

Apirilaren 23an, igandearekin, jokatuko da XXX. Burunda Txirrindulari Elkartea Saria, kadeteen mailako lasterketa eta izenak dioen bezala, Burunda klubak antolatutako proba.

Kadeteek goizeko 11:00etan ekingo diote 63 km-ko ibilbideari. Hasieran Zegamako bidegurutzera joko dute, handik buelta hartu, Altsasutik pasa eta Olaztirantz egiteko. Ziordiaraino iritsiko dira, han buelta hartu eta Bakaikuraino iritsiko dira, bertan buelta hartu eta, atzera ere, Ziordiraino joateko. Buelta hartuta, Olaztin sartu eta Altamira portua igotzeari ekingo diote. Altamira jaitsita, Iturmendiraino iritsiko dira, bertan buelta hartu eta Altsasuko udalaren parean dagoen helmuga izango dute helburu txirrindulariek.

Gonzalez garaile Erramu Trofeoan

Sociedad Deportiva Alsasuak (SDA) antolatutako LVIII. Erramu Trofeoa igandean jokatu zen, Altsasun. Aurten ibilbidean aldaketak egin zituen antolakuntzak, proba herritik gehiagotan pasatzeko. Horrela, guztira 7 aldiz pasatu ziren txirrindulariak Altsasutik. "Ibilbide aldaketa arrakastatsua izan da guztiz" nabarmendu du SDA-ko txirrindularitza sekzioko buru eta lasterketako koordinatzaile Felix Mazkiaranek.

Txirrindulari juniorrak goizeko 11:00etan abiatu ziren SDA elkarteko egoitzaren paretik. Aurrez aurre 77,3 km zituzten, Altamirako igoera hirutan barne. 105 txirrindulari atera ziren eta horietatik 71 sailkatu ziren. Fundación Victor Sastre taldeko Adrian Gonzalez iritsi zen bakarrik helmugara (1:59:17). 14 segundora Aseguras taldeko Ivan Cobo sartu zen, eta 40 segundora tropeltxo bat. Tartean zeuden Intersport Irabiako Josu Etxeberria, helmugan 19.a, eta Quesos Albenizko Mateo Gonzalez, helmugan 20.a. Ailetz Lasa (Q.A.) 30.a sartu zen, Hodei Zia (Q.A.) 47.a, Beñat Etxezarreta (I.I.) 58.a eta Xabier Mauleon (I.I) 69.a. Talde onena Fundación Victor Sastre izan zen eta mendiko sailkapena Adrian Gonzalezek irabazi zuen.

Eskalada

Mank-ek hastapeneko eskalada ikastaroa antolatu du maiatzan

Ion Gurutz Lazkoz monitorea, eskuinean, aurreko ikastaro batean. ARTXIBOA

Maiatzaren 19an, 20an eta 21ean izanen da

Sakanako Mankomunitateak hastapeneko eskalada ikastaroa antolatu du. Maiatzaren 19an, 20an eta 21ean izanen da eta teoria eta praktika uztartuko dira bertan.

Eskaladan eskarmentu handia duen Ion Gurutz Lazkoz Martinez eskalatzaile arbizuarra izanen da monitorea. Hastapeneko ikastaroa izanik, helburua haitzean eskalatzeko oinarrizko ezagupen eta teknikak lortzea izanen da. Horretarako, lehen egunean, ostiralean, 18:00etatik 20:00etara, klase teorikoa eskainiko du Manken egoitzan, Lakuntzan. Aldiz, larunbatean eta igandean praktikak egitera aterako dira, goizeko 10:00etatik 17:00etara. Mankek jarriko dute hitzordua eta kotxeak antolatuko dira. Norberak eguneko bazkaria eraman beharko du.

14 urtetik gorakoek eman dezakete izena. Izena ematea zabalik dago, maiatzaren 12ra arte, Mankek (948 464 866, kirolak@sakanamank.eus). Materialari dagokionez, arnesa, katuak eta kaskoa eraman beharko dira. Norbaitek materiala ez badu, antolakuntzak utziko dio.

Enduro

V. Enduro Irañeta, igandean

10:00etan emango zaio hasiera probari

Igandean Irañeta motorzaleen bilgune izango da, V. Enduro Irañeta proba baitago jokoan. Pilotuak goizean goiz bilduko dira Irañetan, 8:00etatik aurrera pasa beharko dituztelako motorren egiaztapen probak. Baina enduro lasterketa, berez, 10:00etan hasiko da. Pilotuen artean sakandarrak izango ditugu. Enduroa motokrossaren eta trialaren nahasketa da: motokrossaren abiadura eta trialaren teknika nahasten ditu.

Mendia

Olazti-Arantzazu, Sakanako Mendizaleekin

Apirilaren 23an, goizeko 7:00etan aterata

Sakanako Mendizaleak taldeak apirileko irteera prest dauka. Olaztitik ateratzea eta mendirik mendi Arantzazuraino iristea da erronka, Olaztiko Sutegi taldekoek prestatu eta zehaztutako ibilbide eder eta bikainean. Autobusean izena emateko epea zabalik dago, ohiko tokietan edo 639 117 631 telefonoan. Autobusa goizeko 7:00etan aterako da.

40 aniversario
tanatorios IRACHE
Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

"Betidanik"

948 19 70 70
@GrupoIrache
GrupoIrache
www.tanatoriosirache.es

Maribel Lopez Iturbe

Eskerrak eman nahi dizkizuegu
momentu triste hauetan,
gure ondoan egon zareten guztiei.

Ama maitea, beti gure bihotzean

Etxarri Aranatzen, apirilaren 5ean

Maribel Lopez Iturbe

Utzi pentsatzen berriz
elkartuko garela,
iraganeko egunak
itzuli ahal direla.

Juani, Ione, Poixtiña, Intzara eta Maddi

Etxarri Aranatzen, apirilaren 5ean

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu.
Bidali mezua eskelak@guaixe.eus-era edo hots egin 948 564 275 telefonora

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK | 3 LANA/NEGOZIOAK | 5 IBILGAILUAK | 7 AISIA/KIROLA
2 TEKNOLOGIA | 4 DENETARIK | 6 HARREMANAK | 8 FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Astekarian: Saldu/erosi, errentan eman/hartu, 8€ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: iragarki@guaixe.eus

LANA | NEGOZIOAK

Argitu etxetresna elektrikoak denda eskualdatzen da. Tel 610 780 226.

IKASTAROAK

Zer da ikasketa kooperatiboa? Irakasleendako prestakuntza, euskaraz. Maiatzaren 10ean, 15:30etik 17:30era Lakuntzako kultur etxean. Hezkuntza Departamentuaren prestakuntza atala.

Sendabelar ikastaroa Etxarrin. Apiriláren 21ean hasiko da Etxarri Aranatzen Laura Gurbindok emango duen Sendabelar ikastaroa. Ekainera arte iraungo du, ostiraletan izango da 16:00tatik 20:00tara Etxarri Aranazko Kultur Etxean. Doan izango da. Izena emateko deitu 948 460 004 telefonora edota email bat bidali zerbitzuak@etxarriaranatz.eus helbidera. Izena ematerakoan, datuak eman.

OHARRAK

Odol-emaileak. Apiribila: Olaztin, 25ean, 17:00-20:30

Etxarriko Elkartasun eguna. Apirilaren 29an izanen den herri bazkariko txartelak Leku Ona, Derry eta Xapatero tabernetan daude salgai. Helduak 15 € eta haurrak 8 €.

Etxarriko irakurle taldea. Apirilaren 27an, ostegunean, 19:00etan Etxarri Aranazko liburutegian elkartu eta Joseba Sarrionandiaren "Lapur banden etika ala politika" liburuaz hizketatuko dira.

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

Josefina Arregui klinikako bazkidea izan nahi baduzu, urtean 12 € edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com edo amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Patxi) telefonoetara hots egin dezatela

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza, euskonews@euskonews.com, 943 32 22 94

3MBk kontu korrontea zabaldu du Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

Gazteei jarritako isunak ordaintzeko. Euskal preso eta iheslariek aldeko abenduaren 30 eki ekimenean parte hartu zuten gazte sakandarrek 6000 euroko isuna jaso dute. Mozal legearen aplikazio horri elkartasunetik erantzun kolektiboa emateko dinamika martxan jarri dute gazteek. Diru ekarpenak egiteko kontu korrontea zabaldu dute. ES67 3008 0014 2133 8075 1119

Euskaldun bat euro bat. Nafarroako erresumakoa izan zen Baigorriko Etxauzia gaztelua euskaldunentzat erreskuratu nahi da. Nafartarren eta euskaldun guztien etxea izan dadin. Gure kultura, ekonomia, historia eta mugaz gaindiko harremanak antzinarazteko gunea bizia. Informazioa www.euskaldunbateurobat.com

GoiEner Iruñean. Landarek utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabeteko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera...

Helduen Nafarroako Euskal kantu Jaialdia. Udazkenean izanen da. Izena eman nahi duenak nafarroakoeuskalkantu@gmail.com edo amadominguez@tafallaikastola.org e-postara diatzi dezake, helduen jaialdirako dela adieraziz.

OPARITUTAKOAK

Setter amaren txakurkumeak oparitzen ditugu. Tel 659 232 878 (Pello)

JAIOTZAK

- **Silvia Madotz Ekiza,** martxoaren 28an Etxarri Aranatzen.
- **Aitana Saez Lopez,** apirilaren 6an Etxarri Aranatzen.

HERIOTZAK

- **Martin Flores Larraza,** apirilaren 5ean Arbizu
- **Manuel Diaz Guerrero,** apirilaren 10ean Altsasun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

PEPE VIYUELA IRURTZUNEN: Apirilaren 23an, igandean, 19:30ean Irurtzungo kultur etxean izanen da komiko ospetsua. *Encerrona* ikuskizunarekin pailazoaren egunerokotasunaren ikuspegia taularatuko du.

kultura >>

Haur poesia lantzeko lantegia

Maiatzaren 6an izanen da, larunbatarekin, 10:00etatik 13:00etara, Etxarri Aranazko kultur etxean

Aho bete amets izenburua du Yolanda Arrieta idazleak zuzenduko duen lantegiak. Hartan ahozko haur poesiaren onurak eta baliabideak ezagutaraziko ditu, modu praktikoan. Material gaurkotua non topatu ere erakutsiko du. Lantegia guraso, zaintzaile, irakasle, irakaslegai, monitore eta liburutegiko arduradunei zuzenduta dago. Parte hartu nahi dutenek euskara1@sakana-mank.eus e-posta helbidean izena eman beharko dute. 10 euro ordaindu beharko dituzte. Plaza kopurua mugatua dela jakinarazi dute. Lantegia, Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak Etxarri Aranazko Udalaren laguntzaz antolatu du.

Arbizuk badu liburuaren astea



Arbizuko Udalak liburuei eskainitako egitaraua prestatu du hilaren 18tik 28ra. Egitaraua txikienek zabalduko dute. Josema Leitzak *Hiru txerritxoak Sandindegin* bertso-ipuina sortu du eta hura marrazteko tailerra izanen da hilaren 18an eta 19an, asteartean eta asteazkenean, 18:00etan, liburutegian. 6 urtetik gorako haurrek parte har dezakete, baina 10 saio bakoitzean.

Bi tailer horien ondoren, hilaren 20an, ostegunean, dado magikoekin ipuinak asmatzera jolasteko aukera izanen da liburutegian. Liburu markagailuak ere margotuko dituzte. 18:00etan hori ere. Txikienendako liburu aurkezpen batekin despedituko dute astea. Castillo Suarezek *Nemo kapitainaren azken bidaia* liburua aurkeztuko du, ostirala 21ean, 18:30ean.

Udaberri azoka izanen da atzera ere, hilaren 23an. Lore eta landareen artean liburuen trukerako mahai bat jarriko du Arbizuko Udalak. Azkenik, eta Bilgune Feministak antolatuta, *Laura esaten zioten. Miren Odriozolaren borrokak* liburua aurkeztuko dute apirilaren 28an, 18:00etan, udaletxeko batzar gelan.

Ibarreko pop-rockaren bozgorailu

Datorren astean abiatuko da Sakanako pop-rock lehiaketaren lehenengo edizioa. Guztira hamaika taldek hartuko dute parte, jokoan izango diren hiru sarietakoren bat eskuratzeko asmoz. Antolatzaileak pozarren agertu dira jasotako arrapostuarekin.

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza

Ibarrean popa edo rocka jotzen duten musika taldeek elkar ezagutzeko eta berauek hauspotzeko. Horretarako antolatu dute Sakanako pop-rock lehiaketa Lakuntzako Udalak, La Banda del Jefe Bigun taldeak eta Hatortxu Rockek. Musika estilo horiek jorratzen dituzten talde franko dago ibarrean, eta horien bozgorailu izatea du xede lehiaketak. Guztira 11 taldek eman dute izena, eta horiek guztiak nor baino nor ariko dira kanporaketa fasean. Antolatzaileetako bat den Ricardo Aretaren esanetan, ekimenak erantzun "oso ona" izan du momentuz. "Talde askok eman dute izena, espero baino gehiagok. Zortzi edo bederatzi bat espero genituen guk, baina azkenean uste baino hobea izan da erantzuna". Aretaren esanetan, taldeok multzo oso anitza osatzen dute. "Adin aldetik, diferentzia handia dago batetik bestera. Eta estiloari dagokionez ere, denetik dago: punk rocka, heavya, metala, street punka…".

Parte-hartzaileak

Shokdown, SLD, Embajada, Brutal Room, Atzapa Rock, Unnamables, Alerta Gorria, Dentera, Kaskatako, Zintz eta Garabatos.

Lehen fasea apirilaren 22, 28 eta 29an jokatuko da, Lakuntzako kultur etxean. Saioak hiruzpalau taldekoak izango dira, eta bakoitzak 15 eta 25 minutu arteko emanaldia eskaintzeko aukera izanen du. Bertan, beren lau kanta aurkeztu beharko dituzte gutxienez, eta emanaldia beste talde batzuen bertsioekin osatu dezakete. Hori bai, abesti guztiak egile edo konpositorearen baimenarekin egiaztapen agiriarekin batera aurkeztu beharko dituzte. Gauzak hala, taldeek epaimahaiaren aurrean ariko dira, eta horrek erabakiko du zein iristen den finalera. Berau Hatortxuko partaide, Lakuntzako musikari eta Biltokiko gazte banak osatuko dute.

Modu horretan, hiru talde iritsiko dira maiatzaren 6ko finalera, eta bertan sarien lehian arituko. Lehen saria disko bat grabatzeko 40 orduko grabaketa izanen da, eta bigarrena, estudio batean eta ekoizle profesional batekin abesti baten produkzioa eta grabaketa egiteko zortzi orduko jardunaldia. Eta, horietaz aparte, sari berezi bat ere izanen da: Hatortxu Rocken 20. edizioan kontzertua emateko aukera. Azken horren kasuan, publikoaren irizpidea ere aintzat hartuko da irabazlea hautatzerakoan. Horrek lehiaketa bizituko duela deritzo Aitor Gartziak, Aretarekin batera antolatzaile lanetan aritu denak: "Sari berezia lortzeko beharrezkoa da publikoaren botoa edukitzea. Hortaz, taldeek beren lagunak ekarriko dituzte, eta horri esker giro polita egonen da kontzertuetan".

Lehen saioa ate joka

Datorren astean, apirilaren 22an abiatuko da lehiaketa. Lehen saio horretan hiru talde ariko dira: Garabatos, Dentera eta Kaskatako, hirurak ere Altsasukoak. Aretaren arabera, oso saio polita izango da. "Talde oso desberdinak dira. Garabatosek betiko rock and rolla egiten du, Denterak heavy metala, eta Kaskatakori dagokionez, azpimarratu behar da kide gehienak oso gazteak direla. Batzuek 11 urte besterik ez dauzkate. Oro har, aniztasuna da nagusi, eta hori oso ondo dago".

Garabatos **duela bi urte sortu zen, eta geroztik makina bat kontzertu eman ditu AC/DC, Guns N Roses eta Led Zeppelin bezalako taldeen bertsioak interpretatuz. Hasiera batean Mikel Manero (bateria), Gaizka Ocaña (gitarra) eta Iñaki Gasko (gitarra) batu ziren, talde ona osatzen zutela ikusita, eta ondoren Irati Lasa (ahotsa) eta Asier Palomino (baxua) gehitu zitzaizkien. Ocaña, Manero eta Palomino aurrez talde berean egonak ziren, beraz, ez zuten denbora askorik behar izan taldea trinkotzeko. Bertsioak egiten finak dira, baina abesti propioak ere badituzte; esaterako,** *Poison I need*, *Dark Corner* **edota** *Like a jail*.

Denterari **dagokionez, hau lehiaketan parte hartuko duen talderik zaildueneta ko bat da. Izan ere, 2000 urtean sortu zuten Emilio Boalek (baxua eta ahotsa), Angel Diazek (gitarra eta ahotsa) eta Javi Herrerok (bateria). Aurretik Boalek eta Diazek Tinnitus taldea osatu zuten, 1998an, baina bi urte geroago errepertorio propioa hasi ziren hezurmamitzen, eta orduan eratu zuten Dentera, Herrerorekin batera. Ondoren, 2007an, azken fitxaketa bat gehitu zitzaien, Iñaki Otxoa, ordura arte Ekintza Zuzena taldean gitarra eta abeslari lanetan aritua. 17 urteko ibilbidean hiru disko egin dituzte,** *Reakciones Adversas* **(2004),** *Punto Zero* **(2007) eta** *Los Enigmas del Tiempo* **(2012). Beren lanetan rock bizia da nagusi.**

Kaskatako, **bere aldetik, Altsasuko musika eskolako ikasle batzuek sortu zuten 2013an, orduan El Txino Kudeiro izenpean. 2015ean hainbat herritan jotzen hasi ziren –esaterako, Altsasun eta Urdiainen–, eta aurtengo ilbeltzean abesti propioak sortzeari ekin, eta taldeari Kaskatako izena jarri zioten. Gaur egun bost kidek osatzen dute: Jesus Palopek (gitarra eta ahotsa), Ekain Alegrek (gitarra), Unai Villalobosek (baxua eta ahotsa), Euken Perezek (bateria) eta Yakob Samanesek (pianoa). Ska, punk eta rock doinuak dira nagusi beren errepertorioan.**



Demiren ondorengo itxarotea

Apirilaren 22an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean

Iortia antzerki tailerra *Tren-din-topic* lanarekin bueltatuko da eszenara. Joan den urtekoa drama bat izan bazen, "aurten atera zaiguna absurdoaren inguruan dabil". Birjiñe Albire tailerreko zuzendariaren azalpenak dira honakoak: "tren geltoki batean elkartzen dira pertsonaia guztiak. Denek lagun berezi bat zuten, Demi. Hil egin da eta guztiak omenaldi txiki bat egitera joan dira".

Pertsonaiek ez dute elkar ezagutzen eta trenaren zain daudela ezagutuko ditu ikusleak. "Oso pertsonaia desberdinak direnez, egoera arraro xamarrak, elkarrizketa nahikoa absurdoak sortuko dira". Pertsonaien sorreraren abiapuntua "oso errealista da, baina bagoaz handitzen eta exajeratzen eta pertsonaia batzuk nahiko bereziak dira. Horrek istorioari abiadura ematen dio". Eta balioko zerbait desagertuko da. Zeinek lapurtu ote du?

Tren geltokia irudikatzen duen etxetxoa eta aulkia izanen dira eszenografia osatzen dutenak. Obran denbora aurrera doala irudikatzeko eszenen aldaketa ikusleen begi bistan eginen dute. "Oso musika politarekin lan eginen dugu", aurreratu digu zuzendariak. Altsasukoaren ondoren beste nonbaiten emanaldia eskaintzeko prest leudeke tailerreko kideak. **+www.guaixe.eus**

Zein da zein

Begoña (Amelia Lapuente). Oso emakume serioa da. Ematen du den-dena kontrolpean duela. Baina etxean duen senarra da dena kontrolatzen duena, baita Begoñaren bizitza ere. Berak ez ditu besteak diren bezala onartzen, bera oso zorrotza delako. Baina etxekoa da oso zorrotza.

Joxe (Eder Goikoetxea). Tren geltokiko langilea, Demiren herrikoa, lagunak ziren. Oso gizon lasaia da. Beste pertsonaiak trena iristen ez delako urduri daude eta berak lasaitasun puntua jartzen du.

Aran (Santi Goikoetxea). Super exekutibo modernoa da. Bere zilborrari begira dago eta inguruko dena berdin zaio. Berea, berea, berea. Oihukatzen primeran daki. Ia antzezlan osoa oihu batean ematen du.

Ulises (Sergio Molero). Gaztetxo bat da, beti mugikorrekin, tabletekin... mundu horretan sartuta. Errealitatetik alde egiteko egiten du. Ez daki zehazki zer gertatzen zaion, baina bere aitarekiko zerbait duela sumatzen da momenturen batean.

Arrate (Saioa Arregi). Oso emakume berezia da: den-dena kontrolpean izan behar du. Baina kontrola galtzen duenean arriskutsua izan daiteke. Horregatik, den-dena kontrolpean izaten du. Nahi gabe arazoak sortzen ditu.

Eli (Beatriz Ganuza). Neska gaztea, nahikoa berezia. Ez du familiarik izan eta 13 etxe desberdinetan bizi izan da. Besteek ez dakite zergatik izan duen hainbeste aldaketa 13 familia horietatik pasatzeko. Gero jabetzen joanen dira. Berak bere benetako familiaren falta izan du. Alde batetik oso neska jatorra eta maitagarria dela ematen du, baina alde iluna ere badu.

Salba (Alberto Alvaro). Demiren bizitzako gizona izan da. Ezohiko amodioa izan zen haiena. Ez zuen bere herritik joan nahi eta Demik bai. Elkar maitatzen zuten. Batzuetan urrun egonda. Beste batzuetan hurbil egonda. Oso gizon zentzuduna da. Berez, ez da inora joan behar, han bizi da, baina bera ere tren geltokian dago, arrazoi bategatik.

Kontxi (Juli Alvaro). Oso emakume zoriontsua da. Besteengan zoriontasun hori sortzen saiatzen da. Hodeietan bizi da. Beti poltsa batekin doa eta han esentzia potoak eramaten ditu. Batzuetan hartzen ditu eta beste batzuetan berak bota egiten ditu. Esentzia horiek ez dira loreetatik ateratakoak. Izan daiteke itxaropenaren esentzia.

Liburutegiak Liburu Astea prestatu du

Liburuaren Eguna apirilaren 24an da, baina Altsasuko liburuzainek, liburuari eguna baino astea eskaintzea erabaki dute. Hala 24tik 28ra hainbat ekitaldi antolatu dituzte Iortia kultur gunean.

Hijos de la tierra dokumentalaren emanaldiak zabalduko du egitaraua hilaren 24an, 19:00etan. Patxi Uriz Domezain zuzendariarekin ondoren solasaldia izanen da. Lan horrek 2016an film labur onenaren Goya saria jaso zuen eta lan taldean Javier San Felipe Larreak parte hartu zuen.

Asteartean, 18:00etan, txikiek Gloria Fuertesi buruzko poesia tailerrarekin gozatzeko aukera izanen dute. Lehen Hezkuntzan dauden haurrei zuzendutako saioa Manolita Thundersek gidatuko du. Parte hartzeko, aurretik liburutegian izena eman behar da. Hilaren 26an, asteazkenean, Jon Arretxek Toure igarle-detektibearen ibileren bosgarren alea aurkeztuko du, *Piel de topo*. Apirilaren 28an, ostiralean, berriz, *Mainamikirri* liburua aurkeztuko dute Castillo Suarezezek, Joxemari Morcillo "Morkotsek" eta Enara Intsaustik. Aurkezpenaren ondoren, haurrendako tailerra izanen da.

Liburutegitik gogorarazi dute martxoaren 20tik maiatzaren 31ra Irakurri, Gozatu eta Oparitu kanpainan dela, euskaraz irakurtzera animatzea helburu duena.

“Bakarka gaiai kantatu nozkiyon bi ariketetan disfrutetu nen geyena”

Eneko Lazkoz Martinez

Nafarroako Bertsolari Txapelketako txapeldun-ordea

Julio Sotok laugarrenez eskuratu zuen Nafarroako Bertsolari Txapelketa larunbatean. Eneko Lazkoz etxarriarra bigarren izan zen.

Txapelketan Lakuntzako finallaurdenekoan sartu zinen. Ze gogoatzen dezu seyo hartas?
Lakuntzati, onak. Fallo batzuk izan nittuben, pixkat kontzentraziyo faltangatik. Ne bubakin pixkat hasarratu nintzen, beye, orokorrien, bertsotan gustua aittu nintzen ta girue ta, de, oso ona yondu zan. Oroitzapen ona.

Ta Berako final erdiyes?
Bertsotan ongi aittu nintzen beye Lakuntzen bezain beste ez nen disfrutetu, ze netako girue nehiko hotza o arrarue izen zan. Nik de ne betten nehiko sentsaziyo arraro nazkan, han yonko ez banintze bezala. Pixkat deszentratuik bezala, beye bueno... Hale de lortu nen bertsotan txukun eittie ta, finalia pasatzie ta, orduben, ongi.

Finalak ze zapore utzi duzu?
Oso gozue. Ne asmue zan Lakuntzeko sentsazio hoik uraitzie. Ta, bates e, ne bubai eskatzen non bertan non biyertien bertan yotioi sentitzie, ta zentratuik yotie, ta momentube disfrutetzie. Ta lortu nen. Bertsotan ne maile hobenetik oso gertu ibili nintzela uste det. Ta beiretu be klasifikaziyue, ya aurretik oso pozik nintzen. Gio, geña, burus burukoen sartzie ta burus buruko hori gozatzeko aukera uraitzie, ba, pozik.

Ze sentitzen da burus bururako zu izena aitzien?
Ba, egiye esan, ne izena esanen zebiela espero nen. Ez non ne bubai sinisten uztie, baezpa de, gio golpeik ez hartzeko. Beye egiye esan, momentu hortaino, bertsoaldik bertsoaldia, denbora bat pasatzen da, atzien exerita zaude ta pixkat pentsatzen dezu eitten ai zan hortan ta, ta, behin burus burukuen sartuta dena oso azkar pasatzen da. Hasierako momentuben zurrunbilo moduko batek harrapatu zuten ta lehenbiziko ariketa nehiko deszentratuik o harrapatu zuten. Gio beixe lasaittu nintzen ta asko gozatu nen gio.

Finaleko zein lanek bete zuzun?
Ofiziyotan da, oso gustora aittu nintzen. Beye zerbeit azpimarratzekotan bakarka gaiai kantatu nozkiyon bi ariketetan disfrutetu nen geyena.

2015ien hirugerna. Aurten bigerna. Txapela buben noizbeit? O halakotan pentsatzie kaltegarriye da?
Guaixe akatua txapelketa. Eindakuakin gozatzie tokatzen dala eta hemendik bi urtia beste txapelketa bat uraiko diau ta ikusko diau orduben nola gauden ta nola etortzen dan. Ez det gehiei pentsatzen hortan. Noizbeit lortuko banau, oso ongi, bestela, ba, debei.

Hurrengo lana Euskal Herriko txapelketa, ezta?
Bei. Udazkenien hasikua.

Hori nola prestatuko dezu?
Ez dakit. Guaikos deskantso pixkat hartuko det. Beres, ongi etorko zakiten etxien errimakin lan pixkat eitte, beye, egiye esan, nehiko alferra neiz paperan aurrien jartzeko gareien. Launekin pixkat bertsotan aittu ta... Ude aldia zerbeit etten hasi berko neizela uste det. Behin holako aukerat uraita.

Bigerna, ezta?
Ez, lehenbizikue. Ahal dan gehiena gozatzie da asmue, behin hor kantatzeko aukera eukita. Final-laurdenetatik hasten da ta gustetuko zakiten, gutxines, hurrengo fasia pasatzie, beye hoik, ya, hitz handiyek die. Saiatuko ga.

Lekunberriko taldiekin?
Bei, guaño de seitzen diau. Egiye esan, ni talde horri eskerrak mantentzen det asteroko martxa bertsotan aitzeko ta, azkenien, prestaketan o bertsotan ongi aitzian errube horrek daka, asteroko jarraipen horrek.

Aitzera dakat guraso zanetik egunio pitten bat aitzen zala bertsotan.
Bertso doñun bet o beste kantatzen dot. Beye tarareatu eitten det. Bertsotan aittu beño gehio.

Horrek de launduko duzu?
Gehien bat launtzen dena da bertsuek dakan inportantzie ematen buben. Beste gauza betzuk dazkazulako. Azkeniako, horrek txapelketa laseio fatie de ekar dut.

bazterretik

Ilazki Martirena

GASTEIZ ON Pasarelaren XXXI. Edizioa ospatu zen martxoan

GASTEIZ ON pasarelaren 31. edizioa ospatu zen Artium Museoan. Lehendabiziko desfilea martxoaren 27an izan zen, eta azkenekoa 31n. Gasteizko Moda Astea da penintsulako ipar aldean glamour eta xarma gehien biltzen duena.
Martxoaren 29an, esate baterako, Moda Sortzaile Gazteen XXIV. edizioa ospatu zen. Ekitaldi honetan parte hartzeko eman zidaten aukeran “GÉNESIS” izeneko bilduma aurkeztu nuen. Izen hau aukeratu nuen moda munduan sei hilabeteko ziklotan egiten dugulako lan. Denbora epe labur horretan sortu behar izaten dugu beti arropa bilduma: jantziak josi, saldu eta behin zikloa bukatutakoan, berriz ere hasierara; egindako guztiak ahaztu eta berritik hasi hurrengo bilduma izanen dena. Eromenezko erritmoan bizi gara, zalantzarik gabe.
Pasarelako eskarmentua, nola ez, bikaina izan zen. Gonbidatu ninduten une beretik banekien aukera ezin hobea nuela nire lana erakusteko. Testu honetan pasarela bat antolatzea zer den kontatu nahi dizuet (oso labur), sei minutuko desfile horren atzean zer lan dagoen. Hilabeteetako lana dago atzean, ordu asko eta asko. Arropa diseinatzerakoan, kontutan hartu behar da beti bilduma baten parte izanen direla eta denon arteko koherentzia mantendu behar dela. Desfile batean bi bilduma erakusten ditu diseinatzaileak bakoitzak eta hasierako seiak arropa komertzialak izaten dira; hurrengoak, berriz, jantzi bereziagoak. Azken horiek diseinatzeko patroiak egin behar izaten dira, oihal ezberdinetan probatu eta buruan daukaguna lortu arte, beharrezkoak diren aldaketak egin eta egin. Horren ondoren dagokien oihalean moztu eta josten dira.
Alde asko dira kontuan eraman beharrekoak. Musikak, adibidez, ongi lagundu behar du nahi duzun giroa sortzen; oso garrantzitsua da. Oinetakoak ere kontuan hartu behar dira. Ohiturak agintzen duen bezala, azkeneko momentu arte ez zin izan nituen modeloen soinean jantziak probatu, eta badaezpada ere aldaketa aukera ezberdinak eraman nituen azken momentuan gertatuko ziren arazoei aurre egin ahal izateko. Esan beharra dago, ordea, ekitaldi hau oso ongi antolatuta izan zela eta ez nuela arazo berezirik eduki.
Eskerrak eman nahi dizkiet hemendik, eskainitako tratu atseginagatik, antolakuntza lanetan aritu ziren guztiei.
Hementxe uzten dizuet desfilea ikusteko helbidea, espero dut zuen gustakoa izatea...
https://www.youtube.com/watch?v=i9RJhtiWuck



Haize Berriak bandaren musika-ipuina

Apirilaren 23an, domekan, 17:00etan eta 18:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean. 120 sarrera emanaldiko

Haize Berriak bandak *Zarena zarelako* musika-ipuina eskainiko du. Haurrendako propio prestatutako emanaldi bikoitz horretan bandak laguntzaile berezia izanen du: Barbara Rivas aktorea, ETBko Go!azen eta Basakabi serietako protagonista ezaguna. Luis Orduñak zuzentzen duen bandaren eta bere bakarlari Jasone Etxebesteren laguntzarekin denbora luzean oroituko dugun istorioa kontatuko du.

Nafarroako Orkestra Sinfonikoa bueltan

Apirilaren 21ean, ostiralean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean

Duela bi urte Altsasun izan zen Nafarroako Orkestra Sinfonikoa eta bueltatuko zirela hitzeman zuten. Orain emanaldi soila eginen du. *Sinfonikoa Nafarroan* zikloarekin bueltatuko dira. Publiko guztiendako errepertorio klasiko zabaleko kontzertu zikloa da hori. Jesus Etxeberria izanen da zuzendaria eta pieza bakoitzaren aurretik azalpenak emanen ditu.

Egitaraua

Grieg	*Peer Gynt: 1. suitea, Op. 46*
Tchaikovsky	*Antzaren lakua. Aukeraketa*
Brahms	*Hungariar dantzak, 1, 2 eta 10*
Liszt	*Hungariar rapsodia 2, Re minor*

Gasteko >> : eguraldia

	osteguna	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	azteazkena
euria:	4%	5%	30%	15%	15%	20%	55%
Min: / Max:	7 / 22	11 / 20	9 / 17	9 / 14	8 / 15	9 / 16	9 / 15

: tenperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	–	–	–
Etxarri A.	–	–	–
Altsasu	–	–	–
Aralar	–	–	–
Urbasa	–	–	–

: ilargiaren aldia>>

ilbehera	ilberri	ilgora	ilbete
19	26	3	10

EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
www.ventanasegoki.com
egoki@ventanasegoki.com
948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Bazkide zozketa
APIRIBILEKO SARIAK:
1. SARIA:
Ekainberri: 2 sarrera
Artazako Kanpina: %10eko deskontua
Lacturale: esneki lotea
Gaztezulo: 3 hilabetez doan
Magna Gurpea: 2 sarrera
Aquarium: sarrera bat
2.,3. ETA 4. SARIA:
Artazako Kanpina: -%10
Lacturale: esneki lotea
Gaztezulo: 3 hilabetez doan
Magna Gurpea: 2 sarrera
Aquarium: sarrera bat
Ekain berri
IRURTZUN XOTA F.S.
gaztezulo
CAMPING ARTAZA
AQVARIVM SAN SEBASTIAN
lacturale



gk
KOMUNIKAZIOA
Foru plaza, 23-1. Altsasu | 948 564 275 | 948 562 107
gk@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus

>>11 galdera

Maria Lanz Azpilikueta

Bionanoplus enpresako langilea

Testua: Erkuden Ruiz Barroso

1. Biokimika ikasi zenuen eta, ondoren, biomedikuntza masterra ere egin zenuen. Zertan dautza zure ikasketak?
Biologiari buruzko guztia ikasten dugu, hau da, animaliak, landareak eta pertsonak. Ni gehienbat pertsonetan zentratu naiz. Eta hori guztia kimikoki nola dauden eginak aztertu egiten dugu: molekula, zelulak... Mikroskopioekin ikusten diren gauzak.

2. Masterra bukatu ondoren Bionanoplus enpresan lanean hasi zinen. Zer da Bionanoplus?
Iruñeko enpresa txiki bat da, 2010ean sortutakoa, eta produktu pila bat eta oso desberdinak garatzen ditugu. Nanopartikuletan oinarritutako produktuak dira. Enpresak bi patente ditu: gantref eta zeina. Bi polimero dira eta polimero horiekin gauzak berestali daitezke. Gauza naturaletatik hasita, oregano-olioa, esaterako, botika sortu arte. Ibuprofenoa esaterako, edo minoxidiloa, merkatura atera den produktua. Gure polimeroak botikaren barruan sartzen ditugu eta molekula horiek pixkanaka-pixkanaka ateratzen joaten dira. Horrela lortzen dugu dosi gutxiagorekin efektu bera lortzea. Orduan, medikamentuetan txarrak diren efektuak gutxiagotzen dira. Eta hori garrantzitsua da.

3. Eta zein da zure lana?
Ikerkuntza eta garapen lanetan nabil. Bi gauzetan. Bi bide dauzkagu: guk produktuak hasieratik egiten hasi ideia berri bat sortu zaigulako, edo, bestela, kanpoko enpresak etortzen dira eta zerbait behar dutela eta garatzeko eskatzen digute. Orduan guk hori ikertzen hasten gara eta gure teknologien bidez produktu horiek sortzen ditugu.

4. Nola da botika bat sortzeko prozesua?
Errezeta bat prestatzearen modukoa da. Ikerketan gehienetan probatzea da, azkenean ateratzen den arte.

5. Produktu bat kaleratu berri duzue.
Regaxidil deitzen da. Ilea ez erortzeko eta lokartuta dauden folikuluak berpizteko produktua da. Hortaz, ilea berriz ateratzeko produktu bat da. Burusoil baldin bazaude, ilea berriz izango duzu. Ez da guztiz magikoa baina nabaritzen da, eta frogatuta dago. Kalean dago jada, baina formula berria deiturikoa eskatu behar da.

6. Nola izan da botika hau sortzeko prozesua?
2011n hasi ginen produktu honekin. Regaxidil bat merkatuan bazegoen, baina osagai bat zeukan larruazalerako oso ona ez zena, azkura sortzen zuelako eta larruazala gorritzen zuelako. Orduan, guk proposatu genuen produktu bera sortzea, baina osagai hori gabe. Guk birformulatu egin dugu eta gure teknologiaren bitartez hobetu dugu. Proba pila egin behar dira merkatura heltzeraino.

8. Gerta daiteke gauzak nahasten ari zaretela eta produktu berri bat sortzea?
Bai, askotan gertatu da. Zientzian gehienbat.

9. Produktu gehiago merkaturatu dituzue?
Merkatura bakarrik hau heldu da. Baina produktu pila bat dauzkagu. Soriasiarendako, azkurendako... Hor gabiltza produktu gehiago ateratzen eta ikertzen. Espero dut hemendik gutxira besteren bat ateratzea.

10. Regaxidil ikertzen sei urte inguru pasa dituzue. Ikerketa guztiak berdinak dira?
Produktu berriaren sorkuntza horrek urte bat gutxienez, eta hortik merkatura ateratzea gutxiago edo gehiago. Produktu kosmetikoa baldin bada, gutxiago kostatzen da gutxiago frogatu behar delako. Botikara heldu behar baldin bada, segurtasun kontuak oso garrantzitsuak dira eta horrek asko irauten du.

11. Zuek egiten dituzue segurtasun kontrol horiek?
Batzuk bai eta beste batzuk kanpora eraman behar izaten ditugu. Gu ez garelako gai horiek aurrera eramateko. Adibidez, larruazalarekin egindako entseguak eta kontrolak guk egin ditzakegu, baina pertsonekin egiten direnak zentro espezializatu batek egin beharko ditu. Entsegu kliniko horiek egiteko pertsonak hartzen dituzte eta produktua denbora tarte batean frogatzen dute. Efektuak nahi direnak diren edo ez ikusten da. Osorik: www.guaixe.eus